TOKIKOM Urtekaria
txintxarri
1362. zenbakia 2016-12-29 Lasarte-Oria txintxarri.eus

2016

Erronka eta urteurrenen urtea

ASEGURUAK Ges
Zorionak eta Urte Berri on!
Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia
✓ Etxeko aseguruak
✓ Komunitateak
✓ Kotxeak
✓ Dendak
✓ Erretiroak
✓ Istripuak
✓ Enpresak
✓ Bizitza aseguruak
✓ Eta gehiago!
Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943 36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria

txintxarri

Urte berria, Txintxarri berria!!

Urtarriletik aurrera, Txintxarri ostiraletan argitaratuko da

- Formatu erosoagoa eta orrialde gehiago
- Elkarrizketa eta erreportai gehiago
- Kirol atal zabalagoa
- Agenda eraberritua, zinema atala barne
- Eskela eta oroigarri zerbitzua
- Herriko bitxikeriak
- ...

TXINTXARRI ZAHARRA AGURTZEKO, ZOZKETA ANTOLATU DUGU!!

Bidali argazki bat Txintxarri aldizkariarekin txintxarri@txintxarri.eus helbidera edota whatsapp bidez 688 683 510 zenbakira urtarrilaren 4a baino lehen. Argazki dotore eta originalenen artean, sorta ezberdinak zozketatuko ditugu!

Etxean eta kalean, doan eta euskaraz

www.txintxarri.eus

factory logistika
Soinua & Argiak

Kontzertuak
Antzerkiak
Bertso saioak
Guneetako soinu eta argi instalazioak
Ekitaldien soinuztatze eta argiztapena
Kultur ekitaldien produkzio eta azpiegitura logistikoa

www.factorysoinua.com
943 50 44 80
646 277 289
605 758 572
Brunet poligonoa.
Oria etorbidea 8-10. 25 pab.
20160 LASARTE-ORIA

2017 zoriontsua opa dizuegu!

2016

Urtarrila

Otsaila

Martxoa

Apirila

Maiatza

Ekaina

Uztaila

Abuztua

Iraila

Urria

Azaroa

Abendua

Urtarrila

Zapirain Anaiak saria Ane Labakarentzat

2015-12-30 'Beranduegi' izeneko lana aurkeztuta, Zapirain Anaiak bertsopaper lehiaketa irabazi zuen Ane Labakak. Haren lana izan zen borobilena epaimahaiaren iritziz; 700 euro eta oroigarria jaso zituen Labakak. Oreretako Xenpelar Bertso Eskolak antolatzen du bertsopaper lehiaketa; XXVII. edizioa izan da aurtengoa.

Maialen Chourraut, 2015eko kirolari gipuzkoar onena

2016-01-04 Gipuzkoako Kirol Prentsaren Elkartearen iritziz, Maialen Chourraut herriko piraguista izan zen 2015eko kirolari gipuzkoar onena. Bigarren aldiz jaso zuen saria Chourrautek; 2012an eskuratu zuen aurrenekoa.

3x3 txapelketa hirugarren aldiz

2016-01-04 Ostadar SKTko saskibaloi alorrak hirugarrenez antolatu zuen 3x3 txapelketa. Aurtengo edizioa Udal Kiroldegian jokatu zen, giro ederrean. 35 talde aritu ziren hainbat kategoriatan, hamabost minutuko partidak jokatzen. Jaurtiketa libre eta hirukoen lehiaketak ere egin ziren, eta baita kantxa erditik egindako jaurtiketena ere.

Gozokiak, ilusioa eta opari mordoa Errege Magoen eskutik

2016-01-06 Urteroko hitzordua zintzo-zintzo kunplitu zuten Ekialde Hurbiletik etorritako Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoek. Goizean Atsobakar egoitza bisitatu eta erregeen laguntzaileek eskutitzak jaso zituzten Okendo plazan. Arratsaldean, Erregeek jaso zituzten etxeko txikienen gutunak Brigitarren komentuan. Ondoren, kabalgata koloretsua egin zuten herriko kaleetan barrena.

Concha Arraztiok erretiroa hartu zuen

2016-01-07 40 urtez gure herrian egindako lan eskergaren ostean, erretiroa hartzea erabaki zuen Concha Arraztiok. Lau hamarkadatan zehar harrera pisu baten ardura eduki du Jesusen Bihotza apostolutzaren ordeneko kideak; zortzi pertsona zaindu ditu bertan. 92 urterekin, zeregin hori utzi eta komentura bueltatu zen moja nafarra.

Presoen hitzak errezitatuz

2016-01-11 Urtero bezala, herritar ugari elkartu ziren Manuel Lekuona kultur etxean Presoen Errezitaldiaz gozatzeko. Espetxe borrokak eta kanpoko sostengua izan ziren gai nagusiak. Aitzol Iriondo, Ibon Fernandez eta Rafa Diez presoek idatzitako testuak errezitatu eta antzeztu ziren. Presoen egoera hobetzeko lanean ari diren bi emakume argentinarren testigantzekin bukatu zen emanaldia. Hunkituta, argentinar diktadura garaian preso egon zirenean jasotako elkartasuna ekarri zuten gogora.

'Muittu Manttangorri' Mugi txartelaren barnean

2016-01-11 Herritar askoren eskaerari erantzunez,'Muittu Manttangorri' autobusa Mugi txartelaren barnean sartu zen, Lasarte-Oria Gipuzkoako Garraioaren lurralde agintaritzan sartu ostean. Neurri horren eraginez, herritar ugarik hobariak dituzte garraiobide horretan egindako bidaietan.

Udalak 149 garaje-plaza alokatuko ditu

2016-01-12 Lasarte-Oriako Udalak Okendo plaza azpiko, Tajamar biribilguneko eta Beko Kaleko 149 garaje plaza jarri zituen alokairuan. Horietatik 124 Okendokoak dira, 21 Tajamarrekoak eta 4 Bekokale bidekoak.

Udalaren jarduerak, erregulatuak

2016-01-14 Lasarte-Oriako Udalaren jarduna erregulatze aldera, Araudi Organikoa onartu zuen Udalbatzarrak urtarrileko ohiko saioan. Udalbatzarraren funtzionamendua eta antolaketa, alkatea aukeratzeko sistema, zinegotzien eskubide eta betebeharrak... Gisa horretako xehetasunak jasotzen ditu dokumentuak. Erabaki historikoa izan zen, ordura arte Udalak ez baitzuen eduki inoiz horrelako araudirik.

Kuadrillategi Bonberenean

2016-01-16 Kuadrillategiko gazteek ikasturtean zehar bizitako abenturetako bat izan zen Tolosako Bonberenea bisitatzea. Egindako bisitan gidari berezia eduki zuten gazteek: Glaukoma taldeko abeslari Juantxo Arakama. Juantxok etxearen filosofia azaldu eta bertan garatzen diren egitasmoen berri hitz egin zuen.

Elkarrekin inguru garbiaren alde

2016-01-17 Hondakinen errausketaren aurka dauden Gipuzkoako hainbat talde Zubietan bildu ziren, elkarrekin lan egiteko eta bertako lurretan eraiki nahi den errauste plantaren aurkako hurrengo pausoak eztabaidatzeko. Gipuzkoako hainbat herrialdetako taldeen izenean joandako 80 bat pertsona elkartu ziren Zubietan.

Junior neskak, Euskal Ligara

2016-01-17 Ostadar SKTko junior neskek balentria ederra egin zuten Euskal Ligara igoz. Errendimendu kategoriako A1 liga jokatu eta fase erregularra aurreneko postuan amaitu zutenez, kategoria horretarako Lauko Finala jokatzeko sailkatu ziren. Lauko Finala irabazi ez zutenez, Euskal Ligan mantentzeko borrokan aritu ziren denboraldia bukatu arte: aise lortu zuten helburua.

Rataplanak Lasarte-Orian

2016-01-19 Danborra, mantala eta sukaldari txanoa, kolore zuri urdinak izan ziren nagusi San Sebastian egun bezperan, Lasarte-Oriako ikastetxeetan. Sarriegi eta beste hainbat doinuren erritmora gaztetxoek San Sebastian eguna ospatu zuten, nola ez, danborrak gogotsu astinduz.

Kolektore berria Lasarte-Orian

2016-01-21 Zubietako ponpaleku berriaren eta kiroldegiaren arteko kolektore berriaren eraikitze-lanak hasi ziren. Bekokale, Ola eta Erribera kaleetan izan zuten eragina. Jesus Zaballos alkateak adierazi zuenez, obra horien helburuak dira herritarrek

Urratsez urrats, bidea

2016-01-04 Txikitako ametsa bete zuen Axier Arteaga pilotariak Tolosako Beotibar pilotalekuan: profesional mailan debuta egin zuen Asegarce enpresaren eskutik. Ibai Zabalarekin egin zuen bikote, Victor eta Ander Imazen kontra jokatzeko. Partidua ez zen Arteagak berak eta harmailetara joandako ehunka herritarrek nahi bezala joan; 22-6 galdu zuen bikote urdinak. Emaitza, ordea, gutxienekoa izan zen orduko horretan; urratsez urrats ari da bidea egiten herriko pilotari gaztea, eta urtarrileko arratsalde euritsu hartan pauso handia eman zuen.

Eztanda Michelin enpresan

2016-01-21 Eztanda batek esnatu zituen Michelin enpresa ondoko bizilagunak, goizaldean. Larrituta, Ertzaintzari hots egin zioten; agenteak iritsi zirenerako, suhiltzaileek kontrolpean zeukaten egoera. Enpresak adierazi zuen kalte materialak ugariak izan zirela, baina zorionez ez zela inor zauritu.

Oria ibai garbi batez gozatu ahal izatea eta ibaia bera berreskuratzea.

Jesus Curielek brontzea Tortosan

2016-01-22 LOKEko judoka infantilek emaitza bikainak erdietsi zituzten Tortosan jokatutako Espainiako Kopan. Jesus Curielek brontzezko domina irabazi zuen, egindako sei borrokaldietan maila bikaina erakutsiz.

Elebeltzen aldeko plataforma

2016-01-22 Elebeltz Topagunearen aldeko plataforma jaio zen, Okendo plazan egindako ekitaldi jendetsuan. Agerraldian plataformarekiko atxikimenduak biltzeaz gain, "Elebeltzen aurkako erasoa" salatu zuten Topaguneko kideek. Udalari egotzi zioten, besteak beste, bertako jarduna geldiarazi nahi izatea, "inongo frogarik gabe" herritar bat inplikatu nahi izana eta alkatetza dekretu bat erabili izana "erabaki politiko bat estaltzeko".

Mundutik Lasarte-Oriara

2016-01-22 Munduko herrialde desberdinetan ibili ziren gazte lasarteoriatarrak 2015ean. Helburu ezberdinekin abiatu ziren, baina bizipen ahaztezinekin itzuli ziren denak. Lasarte-Orian bueltan zirela, bizitako esperientziak partekatzeko 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' izeneko zikloa antolatu zuten. Herrialde bakoitzari bi asteko tartea eskaini zioten eta ekintzak eta hitzaldiak egin.

Kirola beste ikuspuntu batetik

2016-01-22 Endika Gartzia herritarrak jakinarazi zuen elitean konpetitzeari utzi beharko ziola, bihotzeko aorta arterian dilatazio bat zeukalako. Makina bat triatloi, mendi-lasterketa eta antzekoak eginak ditu lasarteoriatarrak. 2007an jakin zuen arazo horren berri, baina orduko horretan medikuek ez zioten goi-mailan aritzea debekatu. Abendu erdialdean esfortzu-probak egin zituen eta espezializatutako kardiologo batek Gartziak ezin zuela jarraitu goi-mailan konpetitzen jakinarazi zion. Herritarrak zehaztu zuen kirola egiten jarrai zezakeela, beti ere bihotzeko pultsazioak kontrolatu eta muga gainditzen ez bazuen. Era berean, eskerrak eman zituen jasotako animo mezuengatik.

'Su Zelaiak' hizpide Irakurle Txokoan

2016-01-26 Mikel Peruarena Ansa idazlearen 'Su zelaiak' eleberria aztertuz ekin zioten 2016ari Irakurle Txokoko kideek. Era berean, Danele Sarriugarte estreinatu zen dinamizatzaile bezala, Uxue Alberdiren lekukoa hartuz. Lehen Mundu Gerran borrokatu zuten euskaldunak ditu hizpide Peruarenaren lanak. 2014ko literaturako Euskadi saria irabazi zuen, baina idazleak uko egin zion aitortza hori jasotzeari.

Lasarte-Oria euskalduntzen jarraitzeko lanean

2016-01-27 Beste urte batez, gure herrian euskara sustatzearen alde lanean dabiltzan hainbat elkartek hitzarmenak sinatu zituzten Udalarekin. Hala, Landaberriko Guraso eskolak, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak, Lasarte-Usurbil Institutuko Kaxkarro guraso elkarteak eta Ttakun Kultur Elkarteak akordioak sinatu zituzten. Bertan izan ziren baita ere Euskara Batzordeko buru Jon Antxordoki eta herriko alkate Jesus Zaballos.

Memoria kolektiboa eraikitzen

2016-01-26/28 Lasarte-Oriako Bizikidetza taldeak antolatuta, 'Bizikidetza berreraikitzen' jardunaldiak ospatu ziren Antonio Mercero aretoan. Andres Krakenberger giza eskubideen aldeko aktibistak eta Paco Etxeberria forense ezagunak eskaini zituzten hitzaldiak. Besteak beste, memoria kolektiboa eraikitzearen eta torturen gaiak jorratu ziren topaketetan.

Kirolprobak liga Raul Gomez Margallorentzat

2016-01-28 2015 urtean lau lasterketa irabazi, hemezortzitan puntuatu eta 1.966,80 puntu poltsikoratuta, Kirolprobak liga irabazi zuen Raul Gomez Margallo herritarrak, hirugarren aldiz jarraian. Jose Gomez de Arribak eta Victor Madejonek osatu zuten podioa.

Euskal dantzen istorio eta garapena

2016-01-28 'Korrotik pikutara' Euskal dantzen garapenari buruzko hitzaldi dantzatua egi zuten Sasoeta ikastetxeko gimnasioan. Euskal Inauterien aurrekari gisa, Oier Arazola dantzariak eta Gari Otamendi musikariak eskaini zuten emanaldia. Ekitaldira bertaratu zirenek euskal dantzaren ibilbidea eta bilakaera historikoa ezagutu zituzten, hasi XVI. mendeko braleatik eta gaur egungo dantza solteetara.

Aitor Anabitarte ACB ligako Minikoparako sailkatzeko fasean

2016-01-29 ACB Ligako taldeen harrobietako gaztetxoek Coruñako Minikoparako sailkapen fasea jokatu zuten Zaragozan. Retabet Gipuzkoa Basket taldeak ere hartu zuen parte bertan; Aitor Anabitarte herritarra izan zen taldekideetako bat. Anabitartek esperientzia bikaina bizitu zuen, nahiz eta Zaragozatik belaunean min hartuta bueltatu.

Rekondo anaiak mus kanporaketan garaile

2016-01-29 Euskal Herriko VIII. Mus txapelketako Lasarte-Oriako kanporaketa jokatu zen Xirimiri elkartean. Hainbat herritar joan ziren hitzordura, baina bakar batek eskuratu zuen hurrengo faserako txartela: Joseba eta Ander Rekondo anaiek, hain justu. Jon Begiristain eta Javi Solchaga garaitu zituzten finalean.

Herrialde Katalanetako egoera aztertuz

2016-01-30 AldarriCATuz taldeko kideek Herrialde Katalanetako egoera politiko eta sozialari buruz emandako hitzaldiak eman zion hasiera 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' izeneko zikloari. Villa Mirentxun aritu ziren aipatu taldeko ordezkariak. Kataluniaren nazionalismoaren bilakaera historikoa, Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako desberdintasunak...asko izan ziren hitzaldi horretan jorratutako gaiak. Antolatzaileak gustura ziren emanaldiak jasotako erantzunarekin.

Goi mailako ikuskizuna Nazioarteko Krossean

2016-01-31 Hipodromora joan ziren zaleek gogotik gozatu zuten Nazioarteko Krossaz. Imane Merga eta Hiwot Ayalew izan ziren lasterketa nagusietako irabazleak. Euskadiko Kross Txapelketetan ere maila handiko korrikalariak aritu ziren Hipodromoan: Ivan Fernandez gasteiztarrak eta Ainhoa Sanz urretxuarrak jantzi zuten txapela. Kross herrikoian, berriz, Raul Gomez Margallo lasarteoriarra nagusitu zen.

Otsaila

Euskalerria triatloi zirkuitua Pili Bodegasentzat

2016-02-01 Lasarte-Oriak izan zuen ordezkaritza urteroko Euskal Herriko triatloi eta duatloi festan. Pili Bodegas herritarrak 2015eko Euskalerria triatloi zirkuitua irabazi zuen, emakumezkoen beterano 1 kategorian, denera 1.425,47 puntu zakuratuta.

Maialen Chourraut, sariz sari

2016-02-01 Herriko piraguistak sariak jasotzen jarraitu zuen, 2015ean egindako denboraldi bikaina zela-eta. Espainiako Piraguismo Federazioarena eta Sabino Arana Fundazioarena gehitu zituen kurrikulumera.

Mikel Fernandino Cafe Bar Bilbaoren gidoi lehiaketan saritua

2016-02-02 Mikel Fernandino herritarrak irabazi zuen Cafe Bar Bilbaok antolatutako Antzerki Laburreko XIII. Gidoi Lehiaketa, gaztelaniazko atalean. 'Un pequeño paso para el hombre' izeneko lana aurkeztu zuen. 1.200 euroko saria jaso zuen Fernandinok.

Buruntzaldean 113 ikaslek atera zuten gidabaimena euskaraz

2016-02-02 Denera 113 ikaslek atera zuten gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz Buruntzaldean pasa den urtean. Eskualdeko sei udaletako euskara zerbitzuek antolatuta, hamar autoeskolak hartu zuten parte egitasmoan. Iragan astean 400 euroko 11 sari zozketatu ziren ikasleen artean. Izar Agirretxe, Mikel Gonzalez eta Andoni Amonarriz izan ziren Lasarte-Oriako sarituak.

Herritarrak santa eskean

2016-02-04 Santa Ageda bezpera izaki, Landaberri ikastetxeko haurrak eta herriko zenbait elkarte kalera irten ziren, egurrezko makilak eskuan, santa eskea egitera. Abestiak dioen bezala, eztarriz sano dabiltzala erakutsi zuten guztiek, Lasarte-Oriako bazterrak ederki girotu baitzituzten.

Kontzertu bufoa, asteburuko ospakizunen aurrekari

2016-02-05 Mota guztietako mozorro koloretsuak soinean, kontzertu bufoa eskaini zuten Udal Musika Eskolako ikasleek kultur etxean, Inauterien aurrekari gisa. Emanaldiarekin gogotik gozatu zuten guraso eta lagunek.

Ikastetxeak Inauterietan blai

2016-02-05 Piratak, surfistak, itsasoko animaliak, euskal arrantzaleak, txantxoak... Lasarte-Oriako ikastetxeetara ere iritsi ziren Inauteriak. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak eta Landaberri LH-k herriko gaiarekin bat egin eta itsasoa izan zen protagonista. Landaberri Garaikoetxeako txikiek, aldiz, Euskal Inauteriak ospatu zituzten. Dantza, antzerkia eta musika izan ziren nagusi.

Itsaspeko Zinema Zikloa

2016-02-08 Urtero lez, Danok Kide elkartearen eskutik Itsaspeko Zinema Zikloaz gozatu zuten herritarrek. Era guztietako proiekzioak ikusi ahal izan zituzten Manuel Lekuona kultur etxean: dokumentalak, film laburrak edota luzemetraiak, umorezko lanak... Otsailean zehar hiru saio prestatu zituzten antolatzaileek. Amaieran, aurtengo edizioaren balorazio oso positiboa egin zuten.

Udalbatzarra, itxuraldatuta

2016-02-10 Udal korporazioak ohiko pleno saioa egin zuen Udalbatzar berrituan. Hormak margotu, koadroak kendu, kortinak aldatu eta zinegotzien aulkiak aldatu ziren. Azken horien erosketa-prezioak (800 euro inguru bakoitzak) polemika sortu zuen; EH Bildu eta LOAD alderdiek horietan ez esertzea erabaki zuten.

Palestinatik Lasarte-Oriara

2016-02-13 Palestina izan zuen hizpide Oihan Agirretxek Villa Mirentxun. 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' zikloko bigarren hitzaldia izan zen. 2015eko abuztuan egon zen Agirretxe bertan, brigadista moduan. Otsaileko hitzaldian palestinarren egoera ikusarazi zuen herritarrak, hainbat ikusleren aurrean.

Fermin Balda judoka bigarren Gasteizen

2016-02-12 LOKEko judokek emaitza bikainak erdietsi zituzten Euskal Herri osoko tatamietan. Junior mailakoak primeran aritu ziren Gasteizen: Fermin Baldak zilarrezko domina irabazi zuen.

Lasarte-Oriak 30 urte

2016-02-15 Otsailaren 15ean Lasarte-Oriako udalerria eratu zeneko 30. urteurrena ospatu zen. Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen hori ospatzeko. Urteurrenaren egunean bertan, Brigitarren komentuan mezara joan ziren korporazioko kideak, 30 urte atzera bertan egin baitzen lehen pleno saioa. Ondoren, udala eratu zeneko akta irakurri zen udalbatzar aretoan.

Ekintza horiek egin aurreko asteburuan nostalgia ariketa bat egin zuten hainbat herritarrek Manuel Lekuona kultur etxean. Julian Sagardiak 1986ko otsailaren 15ean grabatutako irudien bideoa eta Zero Sette Akordeoi Orkestrak eta Sagardiak elkarlanean prestatutako 'Gogoratzen duguna gara' diaporamaz gozatu zuten.

Hizkuntzen elkarbizitza aztergai

2016-02-12 Lasarte-Oriako Udalak Aztiker enpresaren laguntzaz Anitzen Sarea ekimena du martxan. Honen barruan, aniztasuna eta hizkuntza hizpide izan zituen tailerra egin zen. Petra Elser Banaiz Bagarako koordinatzailearekin hainbat dinamika egin zituzten bertara hurbildu zirenekin hala nola, zeinuek duten garrantzia, arabieraz esaldiak ikasi, alemanieraz kanta bat... Dinamika horiek amaitzean, gogoetarako tartea hartu zuten denek, eta inpresioak elkarbanatu.

Luizi batek kalteak eragin zituen Rekalde poligonoan

2016-02-13 Mendi-luizi batek kalte materialak eragin zituen Rekalde poligonoko garabi batean; bi auto hondatu zituen, eta ez zen pertsonarik zauritu. Arratsaldeko ordubiak pasatxo zirenean, luiziak poligonoko garabi bat eta bi auto zanpatu zituen, lurrari eusteko hormak ezin izan baitzion pisuari eutsi.

Barrenak askatuz

2016-02-14 Unai Muñoa eta Ander Lizarraldek 'Ez gara Palestinaz ari' emanaldia oholtzaratu zuten Abend Kafe Antzokian. Xumela Abesbatzak antolatutako ekitaldia izan zen, aurten hamar urte bete dituztela eta. Hainbat herritar gerturatu ziren ikuskizunaz gozatzera, eta, bi bertsolariekin batera, barrenak askatzeko ariketa egitera.

Odol-ematea sustatuz

2016-02-15 Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak hitzarmena sinatu zuten. Herriko alkate Jesus Zaballosek odola ematearen garrantzian abarmendu zuen, eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Lasarte-Orian egiten duen lana goraipatu.

Hamabi elkarteri diru-laguntzak

2016-02-15 Gizarte zerbitzuetako sailak 13.664 euro bideratu zituen hamabi elkarte diruz laguntzera. Behar bereziak dituzten pertsonekin lan egiten dute elkarteek: ATECE Burmuineko kalte hartua duten pertsonei laguntzeko programa, ADEMGI esklerosi anitza lantzen duena, ADSIS Fundazioaren Gazteak eta Kulturartekotasun programa, ADAHIGI Arreta Faltaren Nahasmendua eta Hiperaktibitatea duten umeen hautemate proiektua, AGIFES Burmuineko gaixotasunak duten pertsonei arreta zuzena ematen diena, GAUTENAren udaleku irekiak, Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkartea, Pausoka Elkartea, Martuteneko espetxeko presoentzako asistentzia ematen duen Izan Fundazioa, ATZEGI familiei laguntza emateko programa, Gipuzkoako Ikusmen Urrikoen Elkartea eta Arantzazuko Amaren Parrokiako Ostarte Gazte Taldea programa.

Aitor Manso karting pilotu herritarra, saritua

2016-02-15 Euskadiko Karting txapelduna izan da Aitor Manso gaztea, hirugarren aldiz segidan. Kadete mailan eskuratu zituen 2013 eta 2014ko garaikurrak, eta junior kategorian 2015ekoa. Euskadiko Automobilismo Federazioak saritu egin zuen herritarraren denboraldi paregabea.

Kantabriako Erret Automobil Elkarteak ere saritu zuen pilotu gaztea, urtarrilaren 17an. AVIA enpresak 1.000 euroko diru-laguntza eman dio Mansori, erregai-gastuak finantzatzeko.

Itsasoa Lasarte-Oriara iritsi zen

2016-02-06/07 Eguraldia lagun, herritarrek eguerdia baino lehen bete zuten plaza. Pirata, arrantzale, eskimal, itsasoko animali ugari eta hainbat filmeetako pertsonaiak ikusi ahal izan ziren.

Inauteriek aurrera egin zuten eta konpartsek ez zuten etenik izan. Bazkaldu ondoren, Okendo plazan batu eta desfilea egin zuten erdialdeko kaleetatik barrena. Herritar ugari hurbildu zen haiek ikustera. Larramendizaleak, Zabaleta auzoko kideak, Zentro zibikoko emakumeak, Tekilak, Nahaste Borraste, Jalgune, Ttakun, Intzak Parrandan, Elkar eta Erketz izan ziren haien doinu eta dantzekin erdialdeko kaleak girotu zituzten taldeak.

Igandean, bestalde, Euskal Inauteriek Lasarte-Oriako mugak gainditu eta Zubietatik Lasarte-Oriara egin zuten bidea.

Hipodromoko zubian egin zen senidetzearen ostean, zubietarrek eta lasarteoriarrek herriko kaleetan barrena egin zuten dantza. Okendo plazan, hartzaren erretzearekin amaitu zen jaia.

Errausketaren aurkako martxa

2016-02-28 Eguraldia lagun, hainbat izan ziren Errausketaren Aurkako Mugimenduak deitutako martxarekin bat egin zuten herritar eta eragileak. Lasarte-Oria izan zen bilgune. Hernani, Donostia, Añorga, Errekalde eta Urnietatik etorri ziren taldeek herritarrekin bat egin zuten Okendo plazan. Ondoren, Gipuzkoako Diputazioak errauste planta eraiki nahi duen eremura igo

ziren. Bertatik jaitsi eta gero, Zubietan egin zuten ekitaldi nagusia.

Burunzpe guraso elkartea esperientziak partekatzen

2016-02-16 Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Burunzpe guraso elkarteak esperientziak elkartrukatu zituen Errenteriako Koldo Mitxelena ikastetxekoekin eta BAIKARA Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioko kide Garbiñe Arrizabalagarekin. Gure herriko ikastetxe horrek kulturartekotasun arloan egiten duen lana ezagutzera etorri ziren.

Ardoak ezagutuz

2016-02-20 Aterpea Merkataritza elkarteak Udalaren laguntzaz, ardo dastaketa jardunaldiak ospatu zituen herriko lau tabernatan: Viña del Mar, Buenetxea, Arkupe eta Lasarten. Harrera ona izan zuen ekimenak. Ehun bat herritarrek Nafarroako edo Errioxako upeltegietako ardoak ezagutu eta probatzeko aukera izan zuten.

Gerra Zibileko lubaki eta aztarnak aztertzen

2016-02-21 Islada Ezkutatuak taldeko kideek Lasarte-Oria inguruetan egindako aurkikuntzak erakutsi zituzten. Horretarako, Txaldatxur mendixkara txangoa egin zuten hainbat herritarrekin batera. Eguraldia lagun, Gerra Zibileko aztarnak ikusi zituzten, Joxe Agustin Muguruzaren azalpenek lagunduta. Besteak beste, lubakietan topatutako eskuzko lehergailu batzuen aztarnak erakutsi zizkieten bertaratutakoei.

Lasarteoriatar ugari El Duesorako martxan

2016-02-21 Frantziako eta Espainiako Estatuetako espetxe politikaren kontra egitearren, mobilizazio orokorra antolatu zen. Zenbait espetxeetara egin zituzten martxak. 150 lasarteoriatar abiatu ziren Kantabriako El Dueso kartzelera. Rafa Diez presoa ikusteko aukera izan zuten, besteak beste.

Piano ikasleak ederki Andoainen

2016-02-21 Andoaingo Seiasle elkarteak urtero antolatutako piano jaialdian hartu zuten parte Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako ikasleek. Bastero kulturgunean 800 pianojole elkartu ziren; horien artean, hamar lasarteoriatar: Alazne Armendariz, Haritza Diaz de Gereñu, Nacho Fernandez, Unax Goenaga, Ainhoa Martin, Leire Martin, Sara Segurado, Aiora Casado, Leire Diez eta Jaione Martos.

'Errauste-planta eta osasuna' hitzaldia

2016-02-24 OEIT Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko bi medikuk (Iñigo Suberbiola herritarra izan zen horietako bat) hitzaldia eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean. Hainbat ikerketari –2004 eta 2015 urte bitartekoak– buruz aritu ziren.

Kubako gaur egungo egoera aztertzen

2016-02-25 'Lasarte-Oriatik mundura' hitzaldi zikloak Kuba izan zuen protagonista. Herrialde honetako egoera ezagutzeko bi ekintza antolatu ziren: argazki diaporama eta hitzaldia.

Kubara egindako bidaiko argazkiak erakutsi eta esperientzia horri buruz arituz iren Irati Perez, Ane Labaka, Ainhoa Mendiluze eta Urdiñe Fernandez. Xirimiri elkartera hurbilduz irenek Kuba ezagutu ahal izan zuten, eta baita bertako jaki batzuk dastatu ere.

Hitzaldia Luismi Uhartek eman zuen. Askapeneko brigadista izana da Uharte eta egun EHUko Antropologia eta erakunde bereko 'Hegoa' Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko irakasle adskribatua da. Latinoamerikari buruzko ikasketetan doktore da eta hainbat lan idatzi ditu.

Elebeltzi babesa

2016-02-25 Elebeltz Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunearen aldeko oihuak entzun ziren gure herriko kaleetan. "Elebeltz aurrera" lelopean hainbat izan ziren plataformarekin bat egin zuten gazte eta herritarrak eta Lasarte-Oriako kaleetatik barrena topaguneari haien babesa eskaini ziotenak.

Biyak Bat eta Michelineko jangelaren arteko akordioa

2016-02-25 Biyak Bat erretiratuen elkarteak eta Michelinek akordio bat sinatu zuten, adineko pertsonek Blas de Lezo kaleko jangela erabili eta bertan bazkaldu ahal izateko. Astelehenetik ostiralera dute bertara joateko aukera, 12:00etatik 14:30era bitartean. Zortzi euroren truke, menu goxo bat jateko aukera daukate.

Semblante Andaluz elkartearen asteburu handia

2016-02-26/28 Beste urte batez, Andaluziaren festa handia ospatu zuen Semblante Andaluz elkarteak. Ekintzaz jositako egitaraua prestatu zuten: hainbat artistaren emanaldiak, herri bazkaria, dantzaldia, meza Arantzazuko Ama parrokian, eta abar. Egun handia igandea izan zen, otsailaren 28a, orduan ospatu baitzuten Andaluziaren XXIII. eguna.

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoak 40 urte

2016-02-27 Lau hamarkada bete ziren SEAD Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatua izan zenetik. Urtemuga berezi hori ospatze aldera, herriko Sahararen Lagunak taldeak hainbat ekintza antolatu zituen. Besteak beste, udaletxeko balkoian Saharar Errepublikaren bandera zintzilikatu eta elkarretaratzea egin zen Okendo plazan. Ondoren, hainbat herritar Antonio Mercero gunera gerturatu ziren, Garikoitz Lasa argazkilari donostiarrak errefuxiatu guneetan ateratako argazkien erakusketaz gozatzera. Halaber, Udalbatzarrak mozio bat onartu zuen otsaileko ohiko saioan.

Literatura eta errealitatea nahastuz

2016-02-27 Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak antolatutako Bertso Afari Literarioa izan zen Xirimiri elkartean. 65 bat lagunek afari gozoa dastatu eta literatura eta bertsoa nahasten dituen ekitaldiaz gozatu zuten. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagak Danele Sarriugarteren laguntzaz, ia bi orduko emanaldia egin zuten elkartean bildu ziren herritarren gozamenerako.

Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi gogoan

2016-02-27 Aurten 13 urte bete dira Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi Juankar seme eta anaia bisitatzera zihoazela istripua izan eta hil zirenetik. Urtemuga gogratu eta presoen dispertsioa eta familien egoera salatzeko ekintzak egin ziren. EH Bilduk lore eskaintza egin zuen Askatasun plazako 'Biharraren memoria' eskulturaren ondoan. Ostiralean, berriz, euskal presoen aldeko elkarretaratzea egin zen eta bertan omenaldi xumea egin zieten.

Lorena Zabala izotz hockeyko Espainiako Kopan

2016-02-27 Bi urte besterik ez daramatza Kazkabarra taldeak emakumezkoen izotz hockeyeko Espainiako Ligan jokatzen. Aurten, hirugarren postuan sailkatu dira eta aurrenekoz aritu dira Espainiako Kopan. Hemezortzi jokalarik osatzen dute taldea denera; Lorena Zabala herritarra da kideetako bat. Majadahonda ligako txapeldunarekin neurtu zituen indarrak taldeak, finalerdietan. 6-4 galdu zuen Kazkabarrak.



2017 zoriontsu, alai eta osasuntsua opa dizuegu!!

ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

✓ Odolkiak
✓ Solomo antzutua
✓ Etxeko txorizoa
✓ Basurde burua
✓ Txistorra
✓ Solomoa baratxuritan
✓ Tripakiak, saltxitxak...
✓ Baserri patea

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria ·Tel: 943 36 12 78 / 943 36 16 55 / 943 36 24 51

Martxoa

"Memoriaren batailaren irabazleei" eskertza

2016-03-06 Islada Ezkutatuak taldeak eskertza ekitaldi hunkigarria egin zuen, 1936ko altxamendu militarra eta ondorengo urteei buruzko testigantzak eskaini dituzten hainbat herritarri aitortza egiteko.

Eladia Gubia Segurado, Juana eta Genatxo Yurrita Barrenetxea, Maria Luisa Arruti Ilarramendi, Josefa Sarriegi Agirre, Miguel Iturrioz Amundarain, Inaxi Otegi Egia, Martin Goenaga, Jose Ignacio Zaldua Alkorta, Isabel Herrera Blanco, Itziar Yarza Etxenike, Pilar Aburuza Garro eta Maria Eugenia Monge Aburuza herritarrek jaso zuten omenaldi xume hori. Kristalezko botilatxo bat jaso zuen aipatutako pertsona bakoitzak.

Txintxarri genero berdintasunaren alde

2016-03-02 Txintxarri aldizkariak bat egin zuen publizitate eta komunikazio ez sexistarako Kode Deontologikoarekin, beste 50 komunikabide eta publizitate agentziarekin batera. Honen bitartez, besteak beste, emakume eta gizonezkoen berdintasunaren alde egiten du, diskriminazio ezarekiko konpromisoa eta emakumeak ikusgai egiteko konpromisoa hartu du.

Enara Fernandez eskiatzailea, podiumeko maila gorenean

2016-03-04 Urtarrila amaierako arantzatxoa – ezin izan zuen igo podiora, erori egin baitzen I. FEDC kopan – atera zuen Enara Fernandezek, Baqueira Bereten (Herrialde Katalanak) jokatutako II. FEDC kopan. Jubenil emakumezkoen kategorian lehiatu zuen herriko eskiatzaileak. Lehenengo postua eskuratuta, urrezko domina kolkoratu zuen, Silvia Alsina gidaren laguntzaz.

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik, saria

2016-03-04 Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egiteagatik saria jaso zuten Andoni Amonarriz, Izar Agirretxe eta Mikel Gonzalez herritarrek. Hiru izen horiek atera ziren kutxatik otsailean egindako zozketan: euskaraz ikasteko aukera ematen duten autoeskoletako ikasle denen artean egiten da. 2010etik daramate egitasmo hori sustatzen Buruntzaldeako udalerrietako euskara zerbitzuek. Buruntzaldea eskualdean 113 ikaslek atera zuten gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz, 2015ean.

Saharako kanpamentuen egoera azaleratzen

2016-03-05 'Lasarte-Oriatik mundura' hitzaldi zikloak Saharako egoera izan zuen hizpide. 'Sahara libre' izenpean bi ekintza antolatu zituzten, hitzaldia eta argazki erakusketa. Hitzaldia Andoni Mujika herritarrak eskaini zuen Xirimiri elkartean. Iker Ortega laguna eta biak errefuxiatuen kanpamenduak bisitatu zituzten; bidai horri buruz aritu zen Mujika, gehienbat. Bestalde, Garikoitz Lasa donostiarrak ateratako argazkiekin erakusketa bat prestatu zen, Antonio Mercero aretoan.

Oteizaren kaxa beltza irekitzen

2016-03-05 Jorge Oteiza artistaren ibilbide eta lanetan oinarritutako emanaldia oholtzaratu zuen Kresala dantza taldeak, Manuel Lekuona kultur etxean.

Bizi izan zen artean, artista gipuzkoarrak hainbat ekarpen egin zizkion euskal kulturari. Hil zen Oteiza, baina hark utzitako ondareak bizi-bizi jarraitzen du gaur egun: poesia eta saiakera sorkuntzak, ikerketa, haurren heziketa estetikoa, asmo esperimentalak, bizi proiektu pertsonalak... Horiek denak aintzat hartuta, 'Oteizaren kaxa beltza' ikuskizuna sortu dute Kresalako kideek.

Aldarrikapenerako bost kilometro

2016-03-06 Euskal Herri osotik etorritako 5.000 emakumek osatutako more koloreko mareak Donostiako kaleak hartu zituen martxoaren 6an. Horietatik 104 izan ziren lasarteoriatarrak. Maite Salazar izan zen herritar bizkorrena, 20'57''ko denbora eginez.

Arteaga II.aren debuta herrian

2016-03-11 Axier Arteaga pilotari profesionala lehenengoz aritu zen Michelingo frontoian profesional gisara, urtarrilean debutatu eta gero. Promozioko binakako txapelketako norgehiagoka bat ikusi ahal izan zuten lasarteoriatarrek herrian. Arteaga II.a eta Apraiz (Imaz zuen bikote Arteagak, baina ezin izan zuen jokatu egun horretan) Agirre eta Larunberen kontra aritu ziren. Herritarrak ezin izan zien garaipena eskaini zaleei; 22-15 nagusitu ziren Agirre eta Larunbe.

'Trinko', Lasarte-Oriako triatloi talde berria

2016-03-11 Hainbat hilabeteko lanaren ostean, Lasarte-Oriako triatleta talde batek talde propioa sortzeko urratsa eman zuen: 'Trinko' du izena. Oraingoz hamabi kide ditu taldeak, baina beso-zabalik hartuko lituzkete triatleta gehiago.

Gozogile trebeak

2016-03-11 Gazte Klubeko lagunek postre lehiaketa egin zuten Okendo plazan. Urtero legez, gaztetxoek euren trebezia erakutsi zuten, osagai desberdinekin jaki goxoak prestatuz: bizkotxoak, irabiakiak, gozo-brotxetak... Ondoren, jakina, egindakoa dastatu behar; Yolanda tabernako kideek osatu zuten epaimahaia, eta ez zuten lan erraza izan.

Eneritz Busto, Espainiako eliteko atletekin lehian

2016-03-12 Eneritz Busto hesi-jauzilariak pista estaliko Espainiako txapelketan hartu zuen parte, absolutu mailakoan. 18 urte eduki eta oraindik juniorra den arren, punta-puntako atleta artean aritu zen Madrilen, 60 metro hesietako proban.

Markei dagokienean, ezin izan zuen 8.88ko denbora hobetu, baina hala ere oso gustura geratu zen egindako lanarekin eta bizitako esperientziarekin.

Kataluniarren ekarpenen gainean hausnartuz

2016-03-12 Sumate elkarteko kide Jose Maria Claverok eta Joan Solek Kataluniako prozesuari buruzko hausnarketak partekatu zituzten Gure Esku Dagok 2016an antolatutako lehenengo Topagunean. Andaluziatik eta Estatuko beste leku batzuetatik Kataluniara bizitzera joandako pertsonek osatzen dute Sumate elkartea, eta azken urteetan emandako prozesu politikoaren aldekoak dira.

Loidibarren sutan jarri zuten KTGko gazteek

2016-03-12 Kuadrillategin parte hartzen duten gaztetxoek KTG Sutan jaialdia antolatu zuten Loidibarren frontoian. DJ Katsondeok girotu zituen jaialdiko lehenengo orduak. Skakeo eta The Garax taldeak aritu ziren ondoren. DBH4ko ikasleek antolatutako ekintza izanik ere, Kuadrilategiko kide eta begirale ugari gerturatu ziren larunbat gauean Loidibarren frontoira.



Rio 2016rako txartela lortu zuen Maialen Chourrautek

2016-03-12 "Riora, bai edo bai". Ezezkoa ez zitzaion burutik pasa ere egiten Maialen Chourrauti. Olinpiar Jokoetan bai edo bai aritzeko, ordea, plaza bermatu beharra zeukan herritarrak, Espainiako selekzioaren hautaketa probetan. Seu d'Urgellen lortu zuen helburua piraguistak, lautik lau jaitsiera irabazita.

Birlak dantzan Michelinen

2016-03-13 Giro ederrean aritu ziren bola-jokalariak Michelinen; birlak dantzan jarri zituzten, goiz eta arratsaldez, Lehendakari txapelketako hirugarren jardunaldian. Gipuzkoako Bola eta Toka federazioak antolatzen du lehiaketa hori. Hainbat ikusle gerturatu

Ospakizuna eta aldarrikapena

2016-03-08 Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi ugari burutu ziren Lasarte-Orian. Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen irudia aldarrikatzeko helburuarekin mahainguruak, ipuin kontaketak eta adierazpen instituzionalak egin zituzten. Herriko ikastetxeetako ikasleek Antonio Mercero aretoan erakusketa antolatu zuten martxoaren 8an. Emakumeek alor desberdinetan (historian, filosofian, zientzian...) izandako papera aldarrikatu zuten.

Maria Morales kazetari andoaindarrak "La consciencia del tiempo" eleberria aurkeztu zuen Emakumeen Zentro Zibikoan. "Emakumeari egindako omenaldia" dela azaldu zuen idazleak.

Haur eta helduentzako ipuin kontaketa saioak ere egin ziren. Bea Egizabalek txikienak gozarazi zituen "Batak panpinak, besteak super-heroiak" kontakizunarekin. "Hotzikara" ipuin erotikoa entzun zuten nagusiek Manuel Lekuona kultur etxean Ines Bengoaren eskutik.

Asteburuan, berdintasunaren aldeko martxa eta Okendon egindako zumba saioa izan ziren ekitaldi aipagarrienak.

Herriko Talde Feminista zenbait egitasmo antolatu zituen baita ere: kafe tertulia Elebeltzen, 'El Test de la Vida' dokumentalaren proiekzioa, Amets Jordanekin identitate ez normatiboen inguruko solasaldia, pala txapelketa eta emakumeen afaria, besteak beste.

Maria Dolores Iturbe, 50 urtez irakaskuntzan

2016-03-20 Landaberri ikastolako irakasle izan da Maria Dolores Iturbe bost hamarkadatan zehar. Lankide eta ikasleen omenaldi hunkigarria jaso zuen Landaberri-Garaikoetxea egoitzan. ndre Joakina Enean bizi zen, eta 14 urterekin hasi zen laguntzaile, ikastolaren sorrerarekin batera. Hiru urte beranduago eman zioten bere lehenengo taldea.

ziren bolatokira egunean zehar. Emakumezkoen kategorian Aitziber Ugalde mutiloarrak irabazi zuen, 42 puntu bilduta. Gizonezkoenean, berriz, Txema Fernandez zarauztarra gailendu zen, 48 puntu eskuratuz.

Material berria Kiroldegirako

2016-03-13 Kardioa eta muskulazioa lantzeko material berria erosi zuen Udalak, kiroldegirako. "Erabiltzaileek egindako eskaera bati erantzuna eman nahi diogu erosketa horrekin", adierazi zuen alkateak. "Herritarrek makina gehiago erabili ahal izango dituzte instalazio horietan", gaineratu zuen.

Memoriaren eta historiaren baliogarritasuna auzitan

2016-03-13 Elkarbizi egitasmoko kideek bizikidetza eraikitzeko bigarren programari hasiera eman zioten. Xavier Minguez psikologia doktorea eta Imanol Lizarralde historia doktoreak 'Indarkeriaren kontakizuna. Osaketa eta bideraketa, memoria edo/eta historiaren bitartez?' solasaldia eskaini zuten.

SuBerri lehenengoz Lesoinun

2016-03-14 SuBerri akordeoi taldea lehenengoz aritu zen Lesoinu musika zikloan. Zehazki, 30. urteurreneko emanaldiei amaiera eman zien kontzertuan hartu zuen parte taldeak. Ramon Irizar saxojolearen laguntza eduki zuten emanaldian.

Aitortu beharreko eskubidea, erabakitzeko eskubidea

2016-03-14 Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak erabakitzeko eskubidea oinarri izan zituzten topaketak antolatu zituen, ekainera bitartean. Orduko horretan kirolarien txanda izan zen. Gaizka Garitano futbol entrenatzailea, Mikel Astarloza txirrindulari ohia eta herriko bi izar gazte, Axier Arteaga pilotaria eta Iraia Iparragirre futbol jokalaria izan ziren Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoren gonbita onartu zutenak. Topagunea zuzentzen Arritxu Iribar kirol kazetaria izan zen.

Lasarte-Oriako ur zikinak Loiolako araztegira

2016-03-15 Espainiako Estatuak lanak bere gain hartu eta hamabost urtera, Lasarte-Oria, Zubieta eta Usurbilgo urak biltzen dituen hodi biltzailea eraikitzeko lanak bukatu ziren. Ondorioz, Loiolako araztegira garraiatzen hasi ziren ur zikinak. Lanak duela sei urte hasi ziren. 13.712 metro ditu hodiak. Lau ponpaketa estazio altxa dituzte. Garrantzitsuena Lasarte-Oria eta Zubieta artean egindakoa. Guztira, 25,72 milioi euroko kostua izan du.

Leire Martin bikain Plasencian

2016-03-15 Txapelketa bikaina burutu zuen Buruntzaldea IKTko igerilari Leire Martinek Plasencian. Eskolartekoen Erkidego arteko txapelketan aritu zen gaztetxoa, Euskadiko selekzioarekin. Launa marka pertsonal, taldeko errekor bat eta Espainiako txapelketarako gutxienekoa patrikaratu zituen.

Musika klasikoaz gozatuz

2016-03-19 XI. Musika Topaketek Manuel Lekuonako aretoa musika klasikoz bete zuten. Musikene Euskal Herriko goi-mailako ikastegiko ikasleek osatutako bi talde izan ziren gurean. Verushka hirukoak eman zion hasiera kontzertuari; klarinete eta biolinaren arteko elkarrizketa izan zen nagusi. Jarraian, Stravinskyren 'Soldadu baten istorioa' obraren moldaketa eskaini zuten. Bigarren zatian, Dana ari laukoteak Antolin Dvorak-en 'Americano' lana eskaini zuen.

Froilan Elespe gogoan 15. urteurrenean

2016-03-19 ETAk Froilan Elespe PSE-EEko zinegotzia hil zueneko 15. urteurrena bete zen. Alderdikide izandakoek eta senideek gogora ekarri zuten herriko zinegotzia urteurren berezi horren atarian. Lore sorta jarri zuten Elesperen hilobian eta herriko alderdikideek bere izenean eskainitako saria banatu zuten.

Antzerkirako zaletasuna bultzatuz

2016-03-20 Kukuka antzerki eta dantza eskolak martxoaren 27ko antzerki eguneko ospakizunak aurreratu zituen, Aste Santuko oporrak zirela-eta. Hala, haur eta helduek egun ederra igaro zuten eskolak antolatutako I. Antzerki Topaketan. Kukukako kideek antzerki tailerrak burutu zituzten, eta baita hainbat emanaldi eskaini ere.

Manttangorri hiribusaren erabilera, goruntz

2016-03-20 Gero eta erabiliagoa da herrian Muittu Manttangorri hiribusaren erabilera. Hori erakutsi zuten behintzat martxan jarri zenetik hiru urtera egindako azterketan. 33.160 bidaiari garraiatu zituen, erabilera %16 gehituz. Aurreko urtearekin alderatuz, 4.597 erabiltzaile gehiago izan ditu hiribusak. Etorkizunera begira are baikorragoa da Udala, erabilera datuei dagokienean.

Kotxe ihesaldia eta atxilotu bat

2016-03-21 Ertzaintzak mugako kontrol batetik ihesi zihoan auto bat geldiarazi zuen Oriako auzoan, El Jardin jatetxe parean. Bi pertsona zihoazen ibilgailu horretan; agenteek horietako bat atxilotu zuten, eta ihesi atera zen bestea. Handik gutxira atzeman zuten bigarren pertsona hori, Bazkardo inguruan.

Babyauto Zarautz, iparraldeko multzoko txapeldun

2016-03-20 Durango RTri 22-10 irabazita, eta liga bukatzeko bi jardunaldi besterik falta ez zirenean, Ohorezko B mailako iparraldeko multzoko txapeldun izan zen Babyauto Zarautz, matematikoki. Liga erregular guztian partidu bakarra galdu zuten Fran Puertasen jokalariek.

Brontzea Eneritz Bustorentzat

2016-03-19 Eneritz Busto hesi-jauzilariak brontzezko domina kolkoratuz itxi zuen atletismoko pista estaliko sasoia. Junior mailako Espainiako pistako txapelketan aritu zen herritar gaztea, 60 metro hesietako proban. 8.77 segundoko marka eginda, podiumeko hirugarren mailara igo zen, kategoria horretan debutatzen zuen denboraldian.

Meritxell Izagirre herritarra, Europako laugarren

2016-03-20 Ampuria Bravan (Katalunia) aritu zen lehian Meritxell Izagirre, Europako dardo txapelketan. Bakarka aritu zen, kriket modalitatean: laugarren postua eskuratu zuen, eta, finalaren atarian geratu arren, oso pozik geratu zen txapelketa horretan egindakoarekin.

Enara Fernandez Espainiako txapeldun jubenil mailan, slalomean

2016-03-20 Enara Fernandez herriko eskiatzaile gazteak bi urrezko domina ekarri zituen bueltan Sierra Nevadatik (Granada): slalom eta slalom erraldoian kolkoratu zituen Espainiako txapelketan, jubenil mailan. Silvia Alsina aritu zen gida lanetan.

Aste Santuko ospakizun jendetsuak

2016-03-29 Aste Santuko ospakizunetan Jesusen azken egunak ekarri zituzten gogora herriko elizbarrutiek; hainbat ekintza burutu zituzten horretarako: Jesusen berpizkundea gogora ekarri, Gurutze bideak, Pazko bijiliak…

Apirila

Luken Carbayeda juniorra ederki Gipuzkoako selekzioarekin

2016-04-03 Valladoliden jokatutako Federazio txapelketan aritu zen Buruntzazpiko txirrindulari junior Luken Carbayeda. Gipuzkoako selekzioko lasterkarietako bat izan zen herritarra. Ederki aritu ziren, taldekako lehenengo postua erdietsi baitzuten bertan.

Erabakitzeko eskubidea helburu

2016-04-08 Gure Esku Dago elkarteak erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarria egin zuen Loidibarren frontoian. Adierazpen bat irakurri zuten, bi puntu nagusi onartzen zituena: Euskal Herria bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duen herria dela, eta euskal herritarroi dagokigula erabaki hori hartzea. 2017an galdeketa egitea dute xede. Horretarako beharrezkoak diren 1.500 sinadurak lortu dituzte jada.

Alboka Abesbatza Errioxan

2016-04-09 Errioxa aldera joan zen Alboka abesbatza, Logroñoko Sagasta Institutuan kontzertua eskaintzera. Emanaldi hori herriko abesbatza eta Logroñoko Orfeoiaren harremanaren fruitu izan zen. Kontzertuaz gain, Biasteri eta ardo upategi bat bisitatu zituen taldeak.

Aste musikala herrian

2016-04-10 Lasarte-Oriako biztanleek IV. Musika Asteaz gozatu zuten. Ekimen horren baitan, instrumentu, pieza eta artista ugariren emanaldiak ikusi eta entzun zituzten: Ana B. Garcia eta Josetxo Goi-Ariberen piano eta saxo doinuak, Serafin Zubiri abeslariaren ahotsa, Sasibil taldearen 'Portuko tabernaria' zarzuela edota Amaren Alabak taldearen 'Plazandere' ikuskizuna.

Euskal Ligan jarraitzeko txartela

2016-04-10 Ostadarreko junior neskek Euskal Ligan mantentzea lortu zuten, jardunaldi baten faltan. Ordiziari 47-36 irabazi zioten, eta Getxok 44-47 galdu. Bi baldintza horiek beteta, jokalari urdin-beltzen ametsa errealitate bilakatu zen.

Ezin zen gehiago eskatu

2016-04-10 Gozatu ederra hartu zuten Lasarte-Oriako VI. BTT proban parte hartu zuten 363 txirrindulariek. Okendo plazatik abiatu ziren, 9:30ean. Andatza eta Buruntza mendian barrena ibili ziren gero: 28 kilometroko ibilbide motza osatu zuten batzuek, eta 39ko luzea besteek. Helmugaratu ostean, Okendon berritu zituzten indarrak guztiek. Eguraldia lagun, Saiatuz txirrindularitza taldeko kideek burututako antolakuntza lanek fruitu oparoak eman zituzten.

KTG eguna ospatzen Trintxerpen

2016-04-10 Lasarte-Oria, Pasaia eta Lezoko Kuadrillategi egitasmoetako gazte eta begiraleek KTG eguna ospatu zuten Trintxerpeko Serafin Esnaola plazan. Ez zuten aspertzeko tarterik eduki egun horretan: hamabi probaz osatutako ginkana, postre lehiaketa eta rezibatukada emanaldia egin zituzten.

Joxe Mari Agirretxeri omenaldia telebistan

2016-04-11 Aspanogi Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarteak Joxe Mari Agirretxe omendu zuen, ETBko 'Asko Maite Zaitut' saioan. Zuhaitz Gurrutxagak gidatutako saioak protagonista lasarteoriatarra eduki zuen orduko horretan. Agirretxek sorpresa ugari jaso zituen lanetik irtetean. Besteak beste, Kukuka antzerki eta dantza eskolak eta Xumela abesbatzak hartu zuten parte omenaldian.

Ingurumen diputatua Usurbilgo Lanbide Eskolan

2016-04-12 Jose Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatua Usurbilgo Lanbide Eskolan izan zen eraginkortasun energetikoari lotutako proiektuak aztertzen.

Earra! bertso eskolaren urteurrena

2016-04-21/24 Lasarte-Oriako Earra! Bertso eskolak duela 25 urte eman zituen bere lehen pausoak. Urtemuga berezi hori ospatze aldera, egitarau zabala antolatu zuen: eskolako gaur egungo zein kide ohien bazkaria, Andoni Egañarekin solasaldia, bertso-eskolen arteko 'BertsoTruk' desafioa eta 'Ez da kasualitatea' bertso-saio musikatua. Giro ederrean, ederki ospatu zuten mende laurdena Earra!-ko kideek.

Pintxoak Berasategiren aholkuekin hornituz

2016-04-15 Pintxo Ibilbideko irabazle atera zen Santxo tabernako Asun Apeztetxea Martin Berasategi jatetxean izan zen, sukaldariaren hainbat aholku entzuten eta praktikan jartzen. Apeztetxeak perretxiko betea aurkeztu zuen lehiaketara, eta lehenengo saria jaso. Berasategik lagundu zion mokadutxo horri beste buelta bat ematen. 'Perretxiko beteak Duxelle erara' egin zituzten.

Lore eta landareen azoka koloretsua

2016-04-16 Aurten laugarrenez, orotariko lore eta landareen bilgune izan zen Okendo plaza. Udalak eta Behemendi zein Dekolore elkarteek antolatutako azokak hamabost postu izan zituen, mota askotakoak. Horrez gain, gaztetxoenek tailer pare batez gozatu zuten: naturarekin eta loreekin egin zuten harremana.

Peru eta kooperante esperientzia

2016-04-16 Nerea Arteaga eta Uxune Iparragirre herritarrak Perun ibili ziren, kooperante lanetan. 'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' zikloaren baitan, euren esperientzia partekatu zuten Villa Mirentxura joandako herritarrekin.

Plaza berriak Atsobakar Zaharren egoitzan

2016-04-16 Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lasarte-Oriako Udalak hitzartu zuten Atsobakar zaharren egoitzan eta eguneko zentroan hutsik zeuden plazak bete ahal izatea. Hala, egoitzan lau plaza eta eguneko-zentroan hamar erabilgarri izatea adostu zuten.

Gotzon Huegun, Ibilbidearen Elkar sariaren egile

2016-04-16 Herriko artista Gotzon Huegunek diseinatutakoa da Elkar Fundazioak aurten aurrenekoz banatu

Iraia Iparragirreren debuta eta garaipena

2016-04-27 Lesioak tarteko, Iraia Iparragirrek apirilera arte itxaron behar izan zuen Realarekin debuta egiteko. Oviedo Modernoren zelaian 90 minutuak jokatuta, Superligan aurrenekoz aritu zen herritar gaztea. Hiru puntuak zakuratu zituzten txuri-urdinek, Titay Calvo eta Nahikari Garciaren golei esker.

duen Ibilbidearen Elkar sariaraen egilea. Egurrez egindakoa da obra, eta, egilearen hitzetan, "gaur eguneratzeko prozesua, elkarlana eta ibilbide baten jarrera" izan zituen buruan, aipatu sari hori diseinatu eta fabrikatzerakoan.

Kultur aniztasuna omentzeko festa

2016-04-17 Azken urteetan Sasoeta-Zumaburun ospatu izan den kulturarteko festak dimentsio are handiagoa hartu du aurten, herri osora zabaldu baita, Multikultur Fest izena hartuta. Sasoeta-Zumaburuko guraso elkarte Burunzpek antolatuta, eta herriko eragile ugariren laguntzarekin, ekintza asko egin zituzten. aniztasuna eta kultur arteko elkarbizitza sustatzeko helburuarekin.

Gazteen euskarazko kirol jarduna ikusmiran

2016-04-22 Udaltop, Udaletako euskara zerbitzuen topaketak Manuel Lekuona kultur etxean egin ziren, 'Kirola D ereduan, noizko?' gaia aztergai gisara hartuta. Hamar ponentzia, bi mahai-inguru eta elkarrizketa bat egin zituzten guztira. Ibon Gaztañazpi kazetari eta arraunlari ohiak egin zituen aurkezle lanak.

Aqua Laudaren emanaldi ikusgarria

2016-04-23 Garai ugaritako abestiak interpretatu zituen Aqua Lauda Abesbatzak, hasi Erdi Aroko piezetatik eta garaikideetaraino, Brigitarren komentuan, X. Musika Topaketen baitan. Bertara hurbildu ziren ikusleek gogotik gozatu zuten.

Hormak biziberritzen

2016-04-23 Aurreko urtean egin bezala, Guztion Lasarte-Oria! lehiaketako mural margoketa egin zen herriko zenbait horma desitxuratutan. Bost lan aukeratu ziren pareta horiei beste itxura bat emateko. Jorge Gordillo Martinezek irabazi du lehen saria, "Corazón" izeneko artelanarengatik.

Lan prekarietatearen aurka mobilizatzen

2016-04-25 LAB sindikatuak ekainera bitarte iragarritako ekintzetako bat burutu zuen Tajamarreko biribilgunean. Mobilizazioa egin zuten, Euskal Herriak eta batez ere Lasarte-Oriak pairatzen dituen langabezia-tasa altua eta prekarietatea salatzeko, eta konponbide gisa independentzia planteatzeko.

Josu Martinezekin solasean

2016-04-26 Irakurle Txokoko kideak Josu Martinez idazlearekin aritu ziren solasean, hark idatzitako 'Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak' eleberriari buruz. Liburu horretan euskal presoen ihesaldi eta ihes-ahaleginak jaso ditu idazle bilbotarrak. Liburuko adibideak oinarritzat hartu zituzten, baina baita gogoeta zabaldu ere, kartzelari eta preso egoteari buruz hitz egiteraino. Horrez gain, preso dagoen Aitzol Iriondo herritarraren ekarpena ere jaso zuten.

Esteban Martinez, Espainiakora

2016-04-26 LOKEren judo alorrarentzat asteburu historikoa izan zen, Esteban Martinez seniorrak Espainiako txapelketarako azken faserako txartela lortu zuelako, Gasteizen. Bi borrokaldi irabazita, finalean sartu eta zilarrezko domina kolkoratu zuen herritarrak. Infantil eta kadete mailan ere ordezkari bana izan zituen LOKEk Madrilen: Martin Sebastian eta Ander Garrido, hurrenez hurren.

Mende laurdenari errepasoa

2016-04-29 Ttakun Kultur Elkarteko Aisia sailak hamaika ekintza, jolas, irteera eta abentura antolatu ditu. Horietan ateratako argazki, irudi eta antzekoak erabiliz, erakusketa ederra antolatu zuen Antonio Mercero erakusketa aretoan. Batek baino gehiagok Ttakunek programetako batean parte hartzaile izan zeneko garaiak gogoratu zituen hainbat urteren ondoren, beste zenbaitek ikusi zuten haurrak zirenetik begirale izaterainoko bilakaera... Erakusketa ikustera joandakoek memoria ariketa polita egin zuten.

3. Mailan, beste urte batez

2016-04-30 3. Nazional mailako liga amaitzeko bi jardunaldi falta zirenean, Ostadar Antonio Aroztegiak maila mantentzea lortu zuen, matematikoki. Sailkapeneko azken aurreko talde Lagun Onak FS 4-1 mendean hartuta bermatu zuen aurten ere kategoria berean aritzea.

Errendimenduko kadete neskak, finaletik at

2016-04-30 Ostadar SKT ez zen sailkatu errendimenduko kadete nesken Gipuzkoako finalera, Iraurgi ahaltsuaren kontra 57-42 galduta. Dena den, emaitza horrek ez zuen itzalpean utzi denboraldian zehar egindako lan guztia; Gipuzkoako lau onenen artean sartzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Dantza nagusi Okendo plazan

2016-04-30 Herriko eskola desberdinek euren trebezia erakutsi zuten beste behin, Okendo plazan. Estilo nahasketan oinarritutako jolasa eta erakustaldi txikia eskaini zituzten Dantzaren Nazioarteko egunean.

Bizipenen poesia

2016-04-30 Ludi Cuesta herritarrak hark idatzitako lehen poema liburu aurkeztu zuen Manuel Lekuona kultur etxean. 'Solo una voz' izenburuarekin, idazleak haren bizitzako hainbat pasarteri buruz egin du gogoeta. Cuestak adierazi zuen "ametsa bete" zuela poesia-liburu hori idatzita.

Xumelak harrera beroa Baztanen

2016-04-30 Lasarte-Oriako Xumela koruak, Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro koruekin batera asteburu pasa ederra igaro zuen Baztanen. Lekarozko aterpetxera joan ziren hiru korotako 100 lagun, egitarau oparoa betetzeko asmoz: Elizondoko alkatearen eta historialari baten eskutik bisita gidatua, Erratzuko elizan kontzertua, Amaiurrera bisita eta gaztelura igoera...ez zuten aspertzeko astirik izan. Tartean, nola ez, hainbat dantza eta abesti saio ere egin zituzten.

Bi herri, sentimendu bakarra

2016-04-30 Lasarte-Oriak eta Tarragonako Torredembarra herriak senidetzea burutu dute aurten ere. Iaz herritar ugari joan ziren Katalunia aldera, eta aurten alderantzizkoa izan da bisita: torredembarrarrek bisitatu dute Lasarte-Oria. Ekitaldi kultural eta gastronomikoz josita koa izan zen egitaraua: ongi-etorri ekitaldia aurresku eta Sorgin dantzarekin, babarrun jan herrikoia plazan, bertsoak, kalejira erraldoia herriko kaleetan zehar, su eta castellers erakustaldia, kontzertuak, Gure Esku Dagoren kriseilu-ekitaldia, vermut dastaketa... Asteburua giro ederrean igaro zuten bi herrietako biztanleek.

LASARTEARRA ELKARTEA



2017 zoriontsua opa dizuegu!

Erribera kalea 10, atzealdea
943 36 29 97 - Lasarte-Oria

Maiatza

Ametsa, amesgaizto

2016-05-01 Liga erregular ia perfektua egin ostean, ametsa zena amesgaizto bilakatu zen Babyauto Zarautzentzat. Ohorezko A mailara igotzeko final laurdenetan UBU Aparejadores taldearekin neurtu zituen indarrak, baina ezin izan zuen mendean hartu. Burgosen jokatu zuten joanekoa, eta 15-12 galdu. Itzulikoan, Zarautzen, ongi ekin zioten norgehiagokari, baina azkenean 21-30 galdu eta igotzeko lehiatik at geratu ziren.

Azkorteko erromeria, usadioa jarraituz

2016-05-08 Ttakun Kultur Elkarteak, Udalaren eta herriko hainbat talderen laguntzaz, erromeria goiz ederra antolatu zuen Santa Krutz eguna ospatzeko. Lehenik, Ama Birjinaren ohorezko meza egin zuten, ermitan. Alboka abesbatzak girotu zuen ospakizuna. Ondoren, Ttirriki Ttarraka eskolako lagunek haien doinuekin alaitu zuten goiza. Herri-kirolek ere izan zuten euren tartea.

Udal musika eskolako ikasleak e-musik jaialdian

2016-05-06 Udal Musika eskolako hainbat ikasle Illunbe zezen plazan aritu ziren, Donostia 2016 kultur hiriburutzako ekintzen baitako e-musik ikasleen topaketan. Denera mundu osoko 8.500 bat ikasle aritu ziren egun horretan, eta errepertorio zabala eskaini. Tartean, kultur hiriburutzarako espreski konposatutako 'Musikatu Bizitza' abestia.

Erketz EDTko kideak jaialdiz jaialdi

2016-05-01 Lasarte-Oriako Erketz EDT-ko txiki, gazte, begirale eta musikari batek Oreretako Dantzari Egunean hartu zuten parte, beste hainbat eskolarekin batera. Denera, 550 haur elkartu ziren, eta herriko kaleetan barrena ibili, eguerdian Gamon Zumardian batu eta emanalditxo bat eskaini aurretik.

Gurasoak ere, erraustegiarekin arduratuta

2016-05-07 Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki gura duen errauste plantak kezka sortu du gizarteko hainbat eragilerengan, baita guraso gipuzkoarrengan ere. Horren harira, horietako asko elkartu eta GuraSOS izeneko mugimendua jarri dute martxan. Manuel Lekuona kultur etxean egin zuten aurkezpena. Nabarmendu zuten ez daukatela interes politiko edo ekonomikorik: "Gure seme-alabak babestu nahi ditugu, ez dugu onartzen euren osasuna arriskuan jartzerik, eta, gaurkoz, errauste plantaren egitasmoak hori ez du bermatzen".

Horrez gain, jakinarazi zuten Eusko Jaurlaritzak onartua daukala 30 kilometroko eragin-eremu bat, eta perimetro horretan 200 hezkuntza zentro sartzen direla, "Lasarte-Oriakoak barne".

Herritarrei gonbita luzatu zieten egitasmoko kide izateko.

Patuaren eragina eta askatasuna aztergai

2016-05-06 'La mano del destino: Libertad' izeneko eleberria aurkeztu zuen Imanol Etxabe herritarrak, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Aipatutakoa lehenengo lana du Etxabek; autoargitaratutakoa da. Fantasia epikozko istorioa da, filosofiaren eragina ere baduena. Sion Selaphain alkimista da kontakizuneko protagonista nagusia.

Gerraosteko heziketa sistemari kritika

2016-05-07 'El florido pensil, Neskak' antzezlana oholtzaratu zuen Ttanttaka taldeak, Manuel Lekuona kultur etxean. Antzezlanean kontatzen dira Espainiako gerraostean zehar indarrean egon zen heziketa sistemaren "basakeria burugabea eta ilogikoa" jasan zuten neska koadrila baten gorabeherak.

Musikarekin eta poesiarekin gozatuz

2016-05-06 Musika eta poesia uztartu zituzten Euskadiko Orkestra Sinfonikoko irakasle Carlos Rosatek (flauta), Tomas Rutik (fagota) eta Mario Telentik (pianoa) Brigitarren komentuan. Beste konpositoreen obrak zein pieza originalak interpretatu zituzten, hainbat herritarren aurrean. Besteak beste, Gerog Phillip Telemann, Sabin Salaberri edota Jesus Guridi konpositoreen lanak ekarri zituzten Lasarte-Oriara.

Axier Arteaga, finaletik at

2016-05-07 Merezita sailkatu zen Gorka Esteban Promozioko eskuz banakako finalera, Michelingo pilotalekuan jokatutako norgehiagokan. Arteaga II.a baino finago aritu zen; akats gutxiago egin zituen, eta apenas eduki zuen aukerarik herritarrak partidan sartzeko. Azkenean, 22-11. Herritarrek ezin izan zuten pilotari gaztearen garaipena ospatu.

Udaberria herriko komertzio eta plazetan

2016-05-13 Deskontuak herriko hainbat komertziotan, tailerrak, haurrentzako puzgarriak, marrazki lehiaketa... Denetarik eduki zuen aurtengo Udaberriko Festak. Aterpea merkatarien elkarteak antolatu zuen, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Denera herriko 37 establezimenduk hartu zuten parte. Herritarrek ez zuten aukera galdu eta aipatu establezimenduetara bertaratu ziren, baita antolatutako ekintzetara ere.

Sufrimendua ulertzen

2016-05-11 'Sufrimendua' izan zen Danok Kide elkarteak aurtengo Balioetan Hezi hitzaldi ziklorako hautatutako gaia. Baketik elkarteko kide Iker Uson izan zen hizlaria. "Ez daukagu makila magikorik sufrimendua desagerrarazteko; eguneroko gauza da, gaur egun zoritxarren jende askok pairatzen duena", adierazi zuen. Denera hiru saio eskaini zituen Usonek: sufrimenduaren sorrera eta zergatiak jorratu zituen gehienbat.

Arzalluz, Villamediana eta Berasarte, Gipuzkoako selekzioarekin

2016-05-14 '26es Nautiques de Tarbes' lehiaketan hartu zuten parte Irati Arzalluz, Nahia Jie Villamediana eta Janire Berasarte Buruntzaldea IKTko igerilariek. Gipuzkoako selekzioak deitu zituen hiru igerilariak. Hiru herritar gazteek maila ezin hobea eskaini zuten txapelketa horretan, zortzi errekor eta bi taldeko marka berri poltsikoratuz.

LOKEko judokak Espainiako txapelketetan lehian

2016-05-08 Espainiako infantil eta kadete mailetako judo txapelketetan aritu ziren LOKEko judoka Martin Sebastian eta Ander Garrido. Lehenengo kanporaketa gainditzea ez zuten lortu.

Esteban Martinez seniorra ere aritu zen Madrilen, absolutu mailako Espainiakoan. Francisco Campos

Aizpea Arroyo gimnasta Euskadi eta Gipuzkoako txapeldun

2016-05-15/05-29 LOKEko gimnastek zeresan handia eman zuten Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan. Aizpea Arroyo seniorra txapeldun izan zen bi kirol ekitaldietan, uztai eta mazekin. Alazne Gonzalez jubenila ere igo zen podiumera, hirugarren mailara zehazki, zintekin.

valentziarrarekin neurtu zituen indarrak, eta borrokaldia galdu.

Euskalgintzan atzerako begirada

2016-05-13 Lasarte-Oriako euskalgintzaren historia aztertu zen Ttakun Kultur Elkarteak eta Argia aldizkariak elkarlanean antolatutako 'Lasarte-Orian euskararen bilakaera. Atzera begira, aurrera begiratzeko' mahai-inguruan.

Villa Mirentxuko hitzaldi aretoan bildu ziren herritarrek Pello Sasian Euskara Batzordeburu ohiaren, Mailu Arruti Landaberriko ikasle, AEKko arduradun eta Ttakun elkarteko lankide ohiaren eta Marga Iturriza Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko irakasle eta zuzendari ohiaren esperientziak entzun ahal izan zituzten.

Penaltietan ezin gailendu

2016-05-14 Gipuzkoako Bigarren Mailako txapeldun izan ez ziren arren, Cecilia Kebab Lasarte Ostadar taldeak mailaz igotzea lortu zuen, Power Rangers FCrekin batera. Bi talde horien artekoa izan zen final handia; arauzko 60 minutuak husnako markagailuarekin bukatu zirenez, penaltietan erabaki zen txapela nork irabaziko; oiartzuarrak izan ziren garaile, 3-1.

Herriko beste taldeetako batek, ISU Leihoakek, Gipuzkoako 1go mailako finala jokatu zuen, Pescados Ferreres pasaitarren kontra. Cecilia Ostadarri gertatu bezala, Eneko Molinaren taldeak penaltietan galdu zuen txapeldun izateko aukera, 60 minutuak igaro ostean hiruna berdindu eta gero. Dena den, emaitza horiek ez zituzten itzalpean utzi herriko taldeek egindako denboraldi bikainak.

Umorea bertsokatuz

2016-05-15 Umorea eta bertsoa izan ziren 'Berritsuketan bertsotan' emanaldiaren ardatza. Manuel Lekuona kultur etxera gerturatutako herritarrek gau atsegina igaro zuten lehen mailako bertsolari eta bakarrizketalariekin. Gaurkotasun handiko gaiak jorratu zituzten; batez ere, Lasarte-Oriarekin eta kulturarekin zerikusia dutenak.

Lasarte-Oria kontakt dantzaren topagune

2016-05-15 Kontaktuaren eta elkar ekintzaren bitartez inprobisaziozko dantza da Kontakt Inpro. Jatorri anitzetako dantzari ugari gerturatu ziren Lasarte-Oria Euskal Herriko Kontakt Inpro III. Topaketara. Sasoeta ikastetxeko gimnasioan egin zituzten ekintza gehienak.

Podiumean, behin eta berriro

2016-05-15 Lepo-aldea karga-karga eginda ekarri zuten LOKEko atleta jubenil eta juniorrek, hainbat domina kolkoan, Durangon jokatutako Euskadiko txapelketatik. Lau urre, bi zilar eta hiru brontzekoa izan zen lasarteoriatarrek Bizkaia aldean jasotako uzta.

Eneritz Bustok urrea eta zilarra kolkoratu zituen, 100 metro lau eta hesietan, hurrenez hurren. Ane Galardik ere berdin, urrea eta zilarra, luzera jauzian zein hirukoitzean. Maider Rekondok bi urre eta brontzea, pisu, disko eta jabalina jaurtiketetan. Amaia Hartok eta Xalba Otxandorenak ere brontze bana irabazi zuten, jabalinarekin eta jauzi hirukoitzean, hurrenez hurren.

Ezin Bergara gainditu

2016-05-15 Lasarte-Orian 2-1 galdu ostean, balentria egin behar zuten pilotari lasarteoriatarrek txapelketan aurrera egin ahal izateko. Bergaran, berriz, ezin izan zuten garaipenik lortu: 20-22 galdu zuten Julen Urruzola eta Alex Etxeberria kadeteek, 22-1 Jagoba Mendizabal eta Eneko Sarasola jubenilek eta 22-20 Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak. Hortaz, ezin izan zuten lehiaketan aurrera segi.

Unai Villenarekin solasean

2016-05-17 Irakurle Txokoko kideek Unai Villena idazle elgoibartarraren bisitarekin itxi zuten joan den ikasturtea. 'Hauts haietatik' eleberriaz hitz egin zuten orduko horretan, luze eta zabal. Ander da istorioaren protagonista. 33 urte ditu eta psikiatrikotik atera berria da. Drogarekiko menpekotasunaren eta eskizofreniaren menpe egin behar dio aurre egunerokoari. Oier laguna izango du alboan Anderre. 2014ko Igartza saria irabazi zuen Villenak, eleberria proiektu zenean oraindik.

Rafa Lopezen lana Alquimia fanzinean

2016-05-17 Rafa Lopez herritarraren kontakizunetako bat Alquimia Fanzineko maiatzeko alean argitaratu zuten. Kontakizunak 'Carassius Auratus' du izenburu. Idazleak azaldu legez, arraingorri bat da protagonista; horrek, "bere ikuspegitik, beirazko mundutik" pertsonak nola ikusten dituen azaltzen du.

Lasarte-Oria Enplegu-Mahaia eratu zen

2016-05-20 Urtarrileko udalbatzarrean organo horren sorrera onetsi ostean, enpleguarekin zerikusia zuten entitateak Villa Mirentxun bildu ziren, aipatu mahai horri forma ematen hasteko. Udalak jakinarazi zuenez, kontsulta-organo horrek erreminta gisa balioko du: eragile publiko nahiz pribatuen lana koordinatu eta gure herrian enplegu-sustapeneko politikak inplementatu.

Pedalari eragiten erraustegiaren aurka

2016-05-21 Hego Euskal Herriko lurraldeak bizikletan zeharkatu zituen 'AHT eta tokian tokiko proiektu txikitzaileen' aurkako Txirrinka ekimena gure herritik ere igaro zen. Hipodromoko zubian, lasarteoriatarrek Zubieta eta Usurbilgo lagunekin bat egin zuten, errauste plantaren aurkako aldarri ozena egiteko.

Musika eta umoreaz gozatzen

2016-05-21 SuBerriren akordeoi doinuez eta Tutik Clowns taldearen umoreaz gozatu ahal izan zuten herritarrek, Akorde-kon-fussion ekitaldian. Musikariek Chuecaren 'El Bateo' edo 'Bagatela'-ren gisako piezak jo zituzten, Tutik Clowns taldeko kideek egoera komikoak sortu eta esketxak zein magia trukoak egin bitartean. Primeran pasa zuten ikusleek ikuskizunarekin, barre, algara eta txalo ozen eginez.

'Hemen eta han...takatan!'

2016-05-21 Herriko Dinbi Banda eta Zornotzako Zaparrada taldeek elkarlanean antolatuta, 'takatan' eta 'takatan' aritu ziren Euskal Herriko hainbat batukada talde, herri bizkaitar horretan ospatutako topaketan. Aurtengoa laugarren edizioa izan da; Lasarte-Orian egin ziren aurreko hiruak. Goizetik hasi eta gaueko ordu txikietara arte, etengabekoak izan ziren perkusio hotsak Zornotza aldean.

Nely Carla Alberto Frantziako Kopako garaile

2016-05-22 Brest Bretagne

Bagoi bat gehiago trenarentzat

2016-05-29 Sare Lasarte-Oriak antolatuta, ekitaldi bat burutu zuten herriko hainbat kultur eragile eta norbanakok. Horretan, salatu zuten espetxe-politikak "kulturalki isolatu" egiten dituela presoak. Ordutik aurrera, giza eskubideen aldeko trenak bagoi berri bat dauka: kulturarena.

Herriko zenbait gunetan geldialdiak egin zituzten eta presoek pairatzen duten eskubide urraketa bat salatu ere bai, Okendo plazara iritsi arte. Bertan, txalapartaren eta Xumela koruko kideen doinuek lagunduta, amaiera biribila eman zioten eki-menari, eta aldarrikatu euskal presoen eskubideen aldeko trena ez dela geldituko.



Handball taldeak Frantziako Kopa irabazi zuen, Toulon 25-16 mendean hartuz. Nely Carla Alberto lasarteoriatarra zen Brest-eko jokalarietako bat iragan denboraldian. Lau gol sartu zituen finalean. Taldea bigarren mailan aritu zen iragan urtean, eta aise lortu zuen kategoriaz igotzea, baita Frantziako Kopa irabaztea ere, aipatu bezala.

Urtebete gehiago Realean

2016-05-23 Iraia Iparragirreren kontratua urtebetez luzatzeko akordiora iritsi ziren jokalaria bera eta Reala. Lesioak tarteko, atzelariak ezin izan zituen minutu asko jokatu iragan sasoian.

Langileen prekarietatea salatzeko astea

2016-05-23 LAB sindikatuak ekintzaz josita-tako astea prestatu zuen, "langileek euren egunerokotasunean jasaten duten prekarietate egoera" salatu asmoz. Horietako bi herrian egin ziren: batetik, elkarretaratzea, udaletxe zaharraren parean. Bestetik, eskualde mailako manifestazioa, Okendo plazatik abiatuta. Hainbat jendek egin zuen bat ekimenekin.

Gaztetxoen bertsoak oholtzan

2016-05-25 Landaberri ikastolako eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleek bertsotan trebeak direla erakutsi zuten beste urte batez. Guraso, senide zein lagunen aurrean ikasturtean zehar 'Gu ere bertsotan' ekimenean ikasitakoaren lagin bat erakutsi zuten.

Gelaka, mozorrotuta edo mozorrotu gabe oholtzara igo, lotsa eta urduritasuna alde batera utzi eta saiorako bereziki prestatutako bertsoa eskaini zuten.

Izkiña txapeldun

2016-05-28 Izkiña tabernak hartu zuen El Puntoren lekukoa, eta herriko areto-futbol txapelketa irabazi. 0-3 garaitu zuen Txindoki; Ibon Irazustak, Ares Gonzalezek eta Iñaki Lopezek sartu zituzten golak. Kontsolazioko finalean, aldiz, Reformas Lagunak nagusitu zen, Alsori 3-2 irabazita. Bi norgehiagoken artean, Jalguneko kideek lagunarteko partidatxo bat jokatu zuten, giro ederrean.

Ikasitakoa erakusten

2016-05-28 Eskola Kirola egitasmoko gaztetxoak Michelingo kirol instalazioetan elkartu ziren, denboraldia jaialdi handi batekin bukatzeko. Saskibaloia, herri kirolak, futbola, brillet-a, bestelako jolasak...ez zuten aspertzeko astirik izan neska-mutil gazteek, aurten ikasitakoa erakutsiz. Amaieran, egitasmoaren antolatzaile Ttakun KEko arduradun eta begiraleek opariak banatu zituzten jaialdira bertaratutakoen artean.

Amaiera, festa giroan

2016-05-28 Denboraldia festa handi batekin itxi zuen Ostadar SKTk. Loidi Barren pilotalekuak kolore urdin-beltzak hartu zituen. Ohi bezala, sari-banaketa izan zen jaialdiko ekitaldi nagusia.

Jon Ander Puertas errugbi jokalaria izan zen oholtzatxora igotzen lehenengoa, Kirolari Onenaren saria jasotzeko. Hernanirekin aritu zen, Ohorezko Mailan, eta kategoria mantentzea lortu zuen. Bestalde, Espainiako 20 urtez azpiko selekzioarekin Europako txapeldun izan zen iazko azaroan. Auzolan saria, berriz, Euskararen Maratoiak jaso zuen, 30 urteotan euskararen alde egindako lanagatik.

Aldarrikapena eta kirola lotuz

2016-05-28 Gehitu Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Elkarteak ortzadarren koloreko lokarriak banatu zituen Ostadarren jaialdian. Era berean, goizean zehar jokatu ziren areto-futboleko finalek iraun bitartean, mahai informatiboa jarri zuten elkarteko kideek, herriko Emakumeen Zentroaren laguntzarekin.

Hamaseigarrenez ironman batean

2016-05-28 Bost urte eta gero, ironman distantziako triatloi bat burutzera animatu zen berriro Andoni Illarramendi herritarra. Tarragona aldera joan zen, IronCat proba egitera. Ez zitzaion batere gaizki joan: bederatzigarren helmugaratu zen, 9:21:11ko denbora eginez. Bigarrenez aritu zen proba horretan; orain dela hamabi urte, aurreneko edizioan, bera izan zen garaile.

Plazan aritu ordez, oholtzan

2016-05-28 II. Dantzari Egunaren emanaldia Okendon zegoen programatua, baina Erketz EDT antolatzaileak erabaki zuen Manuel Lekuona kultur etxean egitea azkenean, eguraldi txarra tarteko. Eszenatokia aldatu zen, baina ez dantzarien ilusioa eta ikuskizun eder bat eskaintzeko gogoa. Bikain aritu ziren Erketz, Andoaingo Urki eta Nafarroako Makaia taldeak. Euren errepertorioko onena eskaini zuten: makil-dantza, ezpata-dantza, Nafarroako dantza tradizionalak... ikusleek ozen txalotu zituzten guztiak.

Dantzari txikiak kalean

2016-05-29 Hurrengo egunean dantzari txikien eguna izan zen. Herriko kaleetatik desfilatu zuten Nafarroako Makaia, Oreretako Ereintza, Sestaoko Salleko, Usurbilgo Orbeldi eta herriko Kukukako dantzariek. Ondoren, arratsaldean, Michelingo pilotalekuan emanaldi nagusia eskaini zuten. Kalejira erraldoi batekin eman zioten amaiera asteburuari.

Eskutatik helduta, erraustegiari "ez"

2016-05-29 Easo plazatik Londres hotelera arteko zatia bermatzeko 500 herritar beharko zituztela aurreikusten zuten Aire Garbia plataformako kideek, eta lasarteoriatarrek ez zuten huts egin: 1.000 lagunetik gora elkartu ziren gune horretan, eskutatik helduta erraustegiari "ez" esateko. Giza-kateak Foru Aldundiaren egoitza eta Onkologikoa lotu zituen. Antolatzaileen aburuz, 5.000 pertsona inguruk hartu zuten parte.

Palomo Linares, 50. urteurrenaren atarian

2016-05-29 2017an, sortu zenetik mende erdia beteko du Palomo Linares elkarteak. Urtemuga hori berezia da oso, baina ez zion distirarik kendu 49.ari. Bazkideek, urtero lez, bazkari legea egin zuten elkartean, giro ederrean.

Ainhoa Iturrioz herritarrena, San Pedro Jaietako kartela

2016-05-31 Aurtengo San Pedro jaietako kartel lehiaketara 22 lan aurkeztu ziren. Epaimahaiak, denak aztertu eta gero, erabaki zuen Ainhoa Iturrioz herritarrarena aukeratzea egitaraua ilustratzeko. Egindako kartelean jaietako gauza garrantzitsuenak irudikatzen saiatu zela azpimarratu zuen.

Ekaina

Teresa sorgina Zabaletan

2016-05-30/06-05 Zabaletako bizilagunek giro ederrean ospatu zituzten auzoko festak. Astean zehar, haurrentzako ekintzak izan ziren nagusi. Eguraldi ona lagun, Teresa sorginaren etorrerarekin bat, asteburuan egitarau zabal batez gozatu zuten: antzerkia, txokolatada, kontzertuak, Sorgin Krosa, herri kirolak, bazkari herrikoia, eskoba eta mus txapelketak... Igandean, hurrengo urtera arte agur esan zioten Teresa sorginari.

Argiterian eta bidegorri sarean hobekuntzak, gaztetxoen eskaerak

2016-06-01 Agenda 21 ekimenaren baitan ikasturte osoan zehar Landaberri eta Sasoeta ikastetxeetako LH5 eta LH6ko ikasleek energiari buruzko lanketa egin zuten. Udalbatzar berezian zenbait eskaera egin zizkioten alkateari: tartean, argiterian eta bidegorri sarean hobekuntzak egitea.

Batxilergoko 2. mailako ikasleei agurra

2016-06-03 Urtero legez, Lasarte-Usurbil BHI institutuak Batxilergoko 2. mailako ikasleak agurtzeko ekitaldia egin zuen. Ohorezko Matrikulak Unai Iribarrek, Iñigo Otaegik eta Enara Cruzek jaso zituzten. Amaia Serrano institutuko ikasle ohiak hitzalditxo bat eskaini zuen. Ondoren, zenbait ikaslek prestatutako bideo bat proiektatu zuten, eta mokadutxo bat janez eman zioten amaiera ekitaldi hunkigarriari.

Iker Cañedo Squash txapelketako garaile

2016-06-04 Iker Cañedok irabazi zuen Squash txapelketa sozialeko final handia, iazko txapeldun Iñaki Garcia garaituz. Lau setetan erabaki zen irabazlea. Hirugarren postua Xabier Azaldegirentzat izan zen, eta Raul Mateosentzat kontsolazio fasea.

Eskolarteko tenis txapelketako finalak

2016-06-04 Eskola Kirola egitasmoaren baitan, iazko ikasturtean tenisean aritu ziren gaztetxoek finalak jokatu zituzten, Michelingo pistetan. Banakako kategorian 110 neska-mutilek hartu zuten parte; taldekakoan, 60k. Saridunen artean hainbat herritar egon ziren. Banakakoan, LOKEko jokalari Xabier Navarro txapeldunorde izan zen. Taldekakoan, Landaberri ikastetxearen ordezkari gisa aritu ziren Alain Mangas, Ugaitz Igarriz eta Manex Bobillo; podiumeko bigarren mailara aupatu ziren.

Padel txapelketako finalak, zirraragarriak

2016-06-04 Herriko padel txapelketako finalak jokatu ziren kiroldegian, giro ederrean. Gizonezko zein emakumezkoen txapeldunen faseetako finalak izan ziren norgehiagoka erakargarrienak. Gorka Lara eta Iñigo Zabala -azken honek ez zuen jokatzerik izan, min hartuta baitzegoen; Angelek ordezkatu zuen- eta Luke Irazusta eta Katerin Arruabarrena izan ziren txapeldunak. Javi Cabo eta Jon Izeta hartu zituzten mendean lehenengoek. Bigarrenek, berriz, bi setetan irabazi zuten txapelketa, Kris Dos Santos eta Elena Benditori.

Finalen ostean, hainbat parte hartzaile eta antolatzailek afari-legea egin zuten Iruin sagardotegian.

LOKEko atletak ederki Euskadikoan

2016-06-04 Absolutu mailako Euskadiko txapelketan aritu ziren LOKEko hainbat atleta, Donostiako belodromoan. Maila ederra erakutsi zuten guztiek.

Eneritz Busto juniorrak brontzea eskuratu zuen 100 metro hesietan. Ane Galardik, berriz, zilarrezkoa jantzi zuen luzera jauzian. Yeray Veroniz belozistak seigarren postua eskuratu zuen 100 metroetako finalean. Xalba Otxandorena ere seigarren izan zen jauzi hirukoitzean; Naroa Furundarena, berriz, zazpigarren. Oihana Igarrizek, bestalde, laugarren postua eskuratu zuen pisu jaurtiketan (4 kilo), eta seigarrena diskokoan (kilo bat).

Gorpuzkia Txaldatxurren

2016-06-04 Islada Ezkutatuak taldeak Txaldatxurren egindako azken aurkikuntzaren berri eman zuen Paco Etxeberria Aranzadiko forenseak, Jaurlaritza, Aldundia eta udal ezberdinetako ordezkarien aurrean. Gune horretan aurkitutako lehenengo gorpuzkia izan zen; adituek ez dute baztertzen gehiago egotea. Hezur batzuk topatzeaz gain, munizioa, orrazia eta botoi batzuk ere aurkitu zituzten.

Islada Ezkutatuakek nabarmendu zuen Alfredo Irustak emandako laguntza: bizkaitarrak urteak daramatza Aranzadirekin kolaboratzaile lanak egiten. Metal detektorea hartu eta Txaldatxurrera igo zen. Gerriko baten plakak pista emanda, inguruan hezur batzuk zeudela ikusi zuen. Aranzadiri abisua eman, eta eurek hartu zuten aztarnak ikertzeko lana.

Hassanna Aaliaren hitzaldia

2016-06-07 Mendebaldeko Sahararen egoera Furia Beltza tabernara ekarri zuen Hassanna Aalia aktibistak. Zendu berria zen eta 40 urtez SEADren presidente eta Frente Polisarioaren idazkari nagusi izandako Mohamed Abdelaziz gogoan izan zuen eta Aaliak bere esperientzia azaldu zuen, nola jaso zuen, hala nola, Rabateko Gobernuak haren aurka emandako atxilotzeko agindua 2013an edota 2015ean Espainiak ukatutako asilo-eskaera. Horrez gain, azpimarratu zuen Mendebaldeko Sahararen gatazka ez dela humanitarioa, politikoa baizik.

Espezie inbaditzaileak Aste Berdean

2016-06-08/11 Aste Berdean Lasarte-Orian dauden espezie inbaditzaileen inguruko kontzienziazio kanpaina egin zen. Asteazkeneroko azokan eta Okendo plazan, Asiako Liztorraren inguruko argazki, habiak edota erleak izango dituen karpa informatiboa jarri zen. Hainbat herritar gerturatu ziren espezie horiei buruz gehiago jakitera.

Euskararekin esperimentatzen

2016-06-08 'Euskara, ezagutzatik erabilerara' mikro irekiaz gozatu zuten herritarrek, Jalgin. Hizkuntza oinarri hartuta garatutako hainbat esperientzia ezagutu zituzten.

Lutxo Egia, Aitziber Gurutzeaga, Maddi del Campo eta Mari Karmen Ormazabal (moderatzailea) mikrofono baten bueltan bildu ziren asteazkenean, Jalgin; euskara oinarritzat hartuta urteotan garatu dituzten zenbait esperientziari buruz jardun ziren, giro ederrean.

Koroibos Race, lehiaketa gogorra

2016-06-12 Indarra eta erresistentzia neurtzen duen proba egin zen Basaundi eta Zumaburu auzo artean, lehenengo Koroibos Race-a. 3 kilometrotako ibilbidea eta 10 indar proba egin behar izan zituzten 50 parte-hartzaileek. Gurpilari buelta eman, kettlebellak igo, enbor zati bat bizkarrera eraman... herritarrek harridura aurpegiarekin begiratzen zituzten lehiakideak.

Bi maila ezberdinetako txapelketa izan zen gainera, Rx, esperientzia duten atletak eta Open, lehen pausoak ematen ari direnak. Ezberdintasuna probetako gailuen pisuak ziren.

Irabazleak Rx mailan, Xabier Azkarate eta Maddi Otxoa izan ziren; open mailan, berriz, Daniel Garcia eta Garoa Martinez. Box hoberena CrossFit Zurriola izan zen.

Mikel Etxarrirekin ikasten

2016-06-11 Texasek antolatutako udarako futbol kanpalekuan aritu ziren gaztetxoek ez zuten nolanahiko maisua eduki saioetako batean. Mikel Etxarri futbol entrenatzaile herritarra Michelinen izan zen, bere ibilbidean zehar pilatutako ezagutzak partekatzen. 50 jokalarik baino gehiagok adi-adi entzun zituzten Etxarriren aholkuak.

Buruntzaldea IKTko gaztetxoak bikain etxean

2016-06-11 Urtea ezin hobeto amaitu zuten Buruntzaldea IKTko benjamin eta alebinek. XXVII. Lasarte saria jokatu zuten Udal Kiroldegian. Hori baino lehen, taldeko gaztetxoenek, aurrebenjaminek, erakustaldi polita eskaini zuten guraso eta lagunen aurrean. Urte osoan zehar ikasitakoa plazaratu zuten.

Rocioko giroa Atsobakar auzoan

2016-06-11/06-12 Rocioko erromeria giroa izan zen Atsobakarreko parkean, asteburu osoan zehar. Musika eta dantza emanaldiez gain, Andaluziako jakiak dastatu ahal izan zituzten parkera hurbildu ziren herritarrek.

Larunbat eguerdian hasi ziren ospakizunak eta arratsaldean, Semblante Andaluz elkarteko taldeekin batera Errenteriako Aljarafe elkarteko koru eta dantza taldeak izan ziren protagonista.

Igandean, Arantzazuko Ama Birjinaren parrokian mezaren ostean, Rocioko Ama Birjinaren irudiak Lasarte-Oriako kaleak zeharkatu zituen. Elkarte gonbidatuetako taldeek alaitu zuten bazkal aurre eta ostean. Eta jaiari amaiera emateko 'Salve Rociera' abestu zuten guztiek.

Txindoki garaile Mosso Oroimenezkoan

2016-06-12 Txindokik irabazi zuen Mosso Oroimenezkoa, bigarren urtez jarraian. Kattagorri Insaustiren aurka jokatu zuten finala. Gogorra izan zen neurketa, baina more koloredun elastikoko taldea gailendu zen azkenean, 4-2.

Xabier Elizegi, Menorcan igerian

2016-06-12 Ultraebre 2014an, Manhattan 2015ean, eta Menorca aurten. Xabi Elizegi igerilariak beste distantzia luzeko erronka bat burutu zuen, eta baita gainditu ere. Menorcako irlan aritu zen igerian pasa den igandean; 25 kilometroko proba burutu zuen, 6. postua eskuratuz horretan, uretan sei ordu eta 45 minutu igaro eta gero.

Urrezko domina Maialen Chourrautentzat Seu d'Urgellen

2016-06-12/06-17 Herriko piraguistak kolkoratu zuen urrezko domina Seu d'Urgellen jokatutako Munduko Kopako proban. 99.61 segundotan osatu zuen ibilbidea, bigarren eta hirugarren sailkatuei -Jessica Fox eta Ricarda Funk- bi eta lau segundo aterata, hurrenez hurren.

Paun jokatu zuen beste proba bat, Seukoa irabazi eta astebetera. Bertan ere ederki aritu zen Maialen eta brontzezko domina jantzi zuen.

Hozkailu solidarioa Manuel Lekuonan

2016-06-13 Udaleko Gizarte zerbitzuak sustatuta, hozkailu solidarioa iritsi zen Lasarte-Oriara. Estatu mailan jarritako 9. hozkailua da hure herrikoa. Manuel Lekuona kultur etxe sarreran topa daiteke. Etxeetan soberan geratzen den janaria bertan utzi daiteke, beharra dutenek kontsumitu ahal izateko.

Udaletxeko ateak automatikoki irekitzeko erabakia

2016-06-14 Ekaineko ohiko udalbatzar saioa egin zuten korporazioko hamazazpi kideek. Besteak beste, adostu zuten Udalak, Aterpea merkatarien elkarteak eta Murias enpresak hitzarmen bat sinatzea, herriko komertzioetan erosketak egiten dituztenei doako parking bat eskaintzeko, eta udaletxeko ate guztiak automatikoki irekitzeko sistema bat instalatzea. Horrez gain, amiantoa daukaten herriko eraikinen errolda bat egiteko konpromisoa ere hartu zuen.

Atsobakar egoitza handitzeko lan hitzarmena

2016-06-16 Egoitza handitzeko dauden aukerak aztertzeko ikerketa jarri zuten abian Aldundiak eta Lasarte-Oriako udalak.

Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak eta Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak Atsobakar herriko adinekoen egoitza handitzeko lan hitzarmena sinatu zuten. Peña diputatuak sinadura honen garrantzia azpimarratu zuen: "Gipuzkoako egoitzen ereduaren diseinuan aurrera egin nahi bada, beharrezkoa da erakundeen arteko elkarlana sustatzea eta sinadura hau beste urrats bat gehiago da bide horretan".

Lasarte-Oriako Atsobakar egoitzak egun, 57 plaza ditu egoitzan bertan eta beste 25 eguneko zentroan.

Kultura, auzoz auzo

2016-06-17 Lasarte-Oriako Udalak 'Kultura Auzoetara' programa jarri zuen abian. Oria auzoan hasi, eta gainontzekoetara hedatu zen gero. Ekain bukaera zein uztailean zehar eraman zen aurrera. Aipatu lez, Oria (bi aldiz), Atsobakar, Zumaburu, Zabaleta eta Sasoetan egin ziren ekimenak. Haurrengana zuzendutakoak izan ziren ekimenak, nagusiki: Lur Usabiaga ipuin kontalariaren istorioak eta hainbat tailer.

Buruntzaldea ere zutik

2016-06-16 Buruntzaldea Zutik ekimeneko kideek lehenengo asanblada egin zuten Okendo plazan. Hainbat kontu eztabaidatu zituzte bertan, taldetxo txikitan bilduta lehenengo, eta guztiek elkarrekin ondoren: koordinazioa, borroka-fokoak, datozen asteetarako ekintzak... Maiatzaren 29an Donostiako Gipuzkoa plazan jaiotako Gipuzkoa Zutik ekimena eskualde mailara hedatu zen berehala, baita Buruntzaldeara ere.

4 milioi euro inbertsioak egiteko

2016-06-27 Azken urteetako aurrekontu potoloena onartu zuen udalbatzarrak. Guztira 25 milioi baino gehiagoko aurrekontua izan da. PSE-EE eta Lasarte-Oriak Ahal Duk alde bozkatu zuten, EAJko zinegotziak abstenitu ziren eta EHBildu kontra azaldu zen. PPko ordezkariak ez zuen parte hartu batzarrean.

Aurrekontua 25 milioikoa izatea estimatu zuten hainbat lur sail saltzea espero delako, Zabaleta Berrikoa eta Zatarain-Kaxkarro tartean. Horrez gain, kopuru horretatik 4 milioi inbertsioak egitera bideratzea adostu zuten: Orian zebra bide bat eta botoidun semaforoa jartzea, Sasoetako bost plazen urbanizazio proiektuak egitea, Jaizkibeleko hiru plazen erauzketarako egitasmoa egitea eta San Martzial eta Uzturre urbanizatzea izan ziren aurreikusitako lan batzuk.

Buruntzaldeako VI. futbol topaketak herrian

2016-06-18/06-19 Buruntzaldeako VI. futbol topaketak gure herrian jokatu ziren asteburuan zehar.

Bi berrikuntza nagusi izan zituen aurtengo edizioak: emakumezkoen futbol 8 txapelketa jokatzea lehenengoz, eta, bestalde, arau jakin batzuk ezarri zituen Udaleko Kirol Zerbitzuak, kirol ekitaldi honetan parte hartzeko.

Emakumezkoen infantil mailan Euskaldunak irabazi zuen; Senior mailan, berriz, Lasarte-Oriako Ostadar taldea gailendu zen, Urnieta 7-3 mendean hartuta. Areto-futbolari dagokionez, Lasarte-Oriako Izkiña taldea gailendu zen, penaltietan.

Erraustegiaren aurkako martxa beltza

2016-06-19 GuraSOS taldeak egindako deiak erantzun masiboa izan zuen, eta jende ugarik egin zuen bat erraustegiaren aurkako martxa beltzarekin. Antiguako tuneletik hasi eta Alderdi Ederreraino, ozen entzun zen beste behin egitasmo horren kontrako aldarria.

Giro ederrean, denboraldiari amaiera LOKEk

2016-06-19 LOKE Lasarte-Oria Kirol Elkarteak Araeta jatetxean itxi zuen 15-16 denboraldia. 100 jatun baino gehiago elkartu ziren aipatu jatetxean. Era berean, asteburuan zehar judo eta gimnasia erritmikoko kideek erakustaldiak egin zituzten Udal Kiroldegian.

Bapo bazkaldu ostean, alor bakoitzeko kirolariek sariak jaso zituzten euren entrenatzaileen eskuetan.

Antzerkiaren eta dantzaren festa

2016-06-06/19 Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideek urtero legez urtean zehar egindako lana erakutsiko zuten 14. Antzerki eta dantza hamabostaldian.

Bi astez, txiki, zein helduek hamaika antzerki lan eskaini zituzten Manuel Lekuonan.

Azken asteburuan, berriz, dantza izan zen protagonista. Hainbat taldek ikuskizun ederra oholtzaratu zuten.

Euskal Dantzako ikasle gaztetxoek hainbat dantza tradizional taularatu zituzten. Euskal Dantza Sorkuntzakoek, berriz, erremate bikaina eman zioten 'Dantzaz Blai!' egunari. Dantza Garaikideko ikasleek koreografia deigarriak plazaratu zituzten, eta Antzerki taldeko kideek 'Itxaroten' lana interpretatu.

Lasarteko martxa, danborraren bitartez

2016-06-21 Lasarte-Oriako Danborrada elkarteak 'Lasarteko martxa' aurkeztu zuen. Jokin Goenaga herritarraren lana da eta herriko danborradaren ereserkia izango da hemendik aurrera. Danborradako kideek azaldu zutenez, urteak zeramatzaten ideiari bueltaka: "Mende erdiko historia duen danborradak ametsa bete du azkenean: ereserki propioa du. San Pedro jaietan eta herritik kanpo egiten ditugun agerraldietan erabiliko dugu doinua".

San Joan suan gauza txarrak erretzen

2016-06-23 Bigarrenez jarraian Andatza plazan piztu zen San Joan sua baliatu zuten lasarteoriatarrek urteko gauza txarrak bota eta horiez ahazteko. Hori baino lehen, Erketzen eskutik, hainbat dantzaz gozatu zuten plazan; udal korporazioko zenbait kide ere animatu ziren dantzatzera. Bestalde, Aire Garbia plataformaren deiari erantzunez, hainbat herritarrek egin zuten protesta Zubietako errauste plantaren egitasmoaren aurka. Kartoizko erraustegi bat ere bota zuten sutara.

Herriko ikastetxeak murrizketengatik protestan

2016-06-24 Herriko tren geltokian elkartu ziren herriko ikastetxeetako hainbat ordezkari, Auzitegi Konstituzionalaren sententziaren kontra protesta egiteko; bertan zehazten zen aurtengo ikasturtetik aurrera igo egingo dela irakasleek eman beharreko klase orduak, kontratazioak eta ordezkapenak murriztuz horrela.

Bakegintzaz eta berradiskidetzeaz hausnartzeko jardunaldia

2016-06-25 Elkarbizi egitasmoaren baitan, indarkeriaren testigantzak biltzen dituen film emanaldia eskaini zen Villa Mirentxun. Berradiskidetzearen inguruko hausnarketa jardunaldia antolatu zuen Ganbo Iturri Elkarteak bertan, 'Indarkeriaren irakurketa filmikoak' tailerraren baitan. Berradiskidetzean oinarritutako testigantza-film bat ikusi zuten. Luzemetraia amaitzean, ikusitakoari buruz hausnartu zuten jarduerara bertaratutakoek.

Elkarrekin Ahal Dugu garaile herrian

2016-06-26 Parte hartzea 4 puntutan jaitsi arren (%68 ingurukoa izan zen), Elkarrekin Ahal Dugu gailendu zitzaion PSE-EEri gurean, 2.822 bozka eskuratuz. Hala ere, abenduan Ahal Duguk 61 bozka gehiago jaso zituen. PSE-EEk, herrian historikoki lehenengo indarra izan denak, 2.493 bozka eskuratu zituen. EH Bildu izan zen hirugarren indarra 1.378rekin; jarraian, EAJ 1.233rekin, PP 1.056rekin eta Ciudadanos 407rekin.

Festa-giroa San Pedro jaietan

2016-06-28/07-02 San Pedro Jaietako haur txupinarekin batera hasi ziren herriko txiki eta gazteentzako jaietako ekintzak. Landaberri ikastolako gaztetxoak izan ziren protagonista, ikastolak 50 urte bete baititu aurten.

Sorgin dantzan, omenaldi xume eta goxoa jaso zuen, 1982. urtean, Sorgin Dantzaren tradizioa berreskuratu zuen Sorgin Dantzaren Lagunak taldeak.

Arratsaldeko txupinan ere Landaberri izan zen protagonista. Ikastolako zein udaleko zenbait ordezkari igo ziren udaletxe berriko balkoira. Txupina bota, eta, lehertu ostean, eztanda egin zuen festak herrian.

15. Sorgin Jaiek ere egunean bertan eman zioten hasiera jaiari. Hamabost urte hauetan festa eredu alternatibo hau posible dela erakusteko lanetan aritu diren sorgin eta aztien omenez bota zuten txupina.

Bost egunez egitarau oparoa izan zen: Patxintxi lehiaketa, makarroi jana, danborrada, zikiroa edo afari herrikoaia, kirolak, dantzaldiak, kontzertuak, haur parkeak, kale antzerkiak, txapelketak, Oriako jaitsiera, zezen suzkoa, bertsoak edo zaldi lasterketak.

San Pedro egunean, Landaberri ikastolako kideek 50 urte hauetan egindako lanarengatik Udalaren esker ona jaso zuten.

Eguraldia ere izan zen protagonista azken egunean, baina ez zuen giroa zapuztu eta Valacea piroteknia etxearen su-festak eman zion amaiera aurtengo San Pedro jaiei.

Uztaila

Atleta juniorrak ederki aire libreko Espainiakoan

2016-07-02/03 Atleta juniorrek zeresana eman zuten Castellonen jokatutako aire libreko Espainiako txapelketan. LOKErekin entrenatzen duen Realeko Itoitz Rodriguezek brontzea irabazi zuen 400 metroetan. Atletico San Sebastian taldean ari den Maria Eugi herritarrak, zilarra erreleboetan eta brontzea 200 metroetan.

Buruntzaldea IKTren uzta oparoa Euskal Herriko txapelketetan

2016-07-03 Txapelketaz txapelketa ibili ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak. Infantilek Udarako Euskal Herriko txapelketa jokatu zuten. Maila bikaina eman zuten denek.

Buruntzaldea IKTko igerilari infantilek uzta oparoa jaso zuten Irunen jokatutako Udarako Euskal Herriko txapelketan: urrezko domina bat, zilarrezko beste bat, eta brontzezko bat.

Jaien balorazioa, "oso ona"

2016-07-04 Behin jaiak amaituta, Udalak oso balorazio ona egin zuen Aurtengo San Pedro jaien inguruan. Txus Alonso zinegotziak adierazi zuen herritarrek hobekien baloratutako gauzak giroa, kontzertuen kalitatea, jardueren deszentralizazioa eta xexenak itzuli izana izan direla.

Familia behartsuentzat janari banaketa

2016-07-04/07 Lasarte-Oriako Udalak Gurutzeko Gorriko boluntario-talde batekin elkarlanean egin zuen hirugarren janari-banaketak 119 familia, hau da, 291 onuradun izan zituen. Uztailaren 4tik 7ra 4.500 kilo janari banatu zen, Udalak jakinarazi zuenez

Hipodromoaren 100 urteak ospatzeko lehiaketa

2016-07-11/23 Aterpeak Udalaren laguntzaz lehiaketa berezia jarri zuen martxan. Herritarrek asmatu behar izan zuten herriko zein denda edota tabernetan zeuden jarrita lau jockey jaka. Hipodromoan bertan aurkeztu zuten lehiaketa berezi hori. Urte oso berezia izan da aurtengoa Hipodromoarentzat, sortu zenetik 100 urte bete baitira.

Gora San Fermin!

2016-07-07 Udako Txokoetako haurrek ere ospatu zituzten San Ferminak, Okendo plazan. Zuri eta gorriz jantzita, zezenengandik ihesi ibili ziren. Jalgi parean botatako txupinarekin lehertu zen festa. Ondoren, zezenak agertu eta umeen atzetik hasi ziren korrika. Goiz ederra igaro zuten neska-mutilek.

Goiegiko Ibarrako etxebizitzak suspertzeko hitzarmena

2016-07-08 Lasarte-Oriako Udalak eta Neinor Norte enpresak Goiegiko Ibarran prezio tasatuko 72 etxebizitza eraikitzeko obrei ekiteko aukera emango duen hitzarmen bat sinatu zuten. Etxebizitza hauek itunpekoak izango dira eta bi faseetan gauzatuko dira. Lehen 36 etxebizitzetan izena emateko epea ireki da dagoeneko eta irailaren 30ean amaitu zen.

Belaunaldiak batzen dituzten doinuak

2016-07-08 Udako Txokoetako txikiek bisita berezia izan zuten: Xumela abesbatzako kideena, hain justu. Eurekin batera, gaztetxoek hainbat doinu ezagun abestu zituzten.

Ikuslearen pentsamenduan murgildutako emanaldia

2016-07-08 Kale-ikuskizun atsegina eskaini zuen Ertza konpainiak Okendo plazan: 'Ikuslearen showa'. Ikusleen adimenean zeharreko 30 minutuko bidaia bat izan zen, dantzan espezializatua ez zen publiko bati zuzendutakoa.

Emanaldia, ikuslearen jarreren eta pentsamenduen inguruko gogoeta bat da. Hori da hain zuzen ere sortzaileen helburua; eskaintzen den kale-ikuskizunaz gozatzea, aurreiritzi inkontzientetik abiatuta eta kritika kontzientera iritsi arte.

Argazki rallya Orian barrena

2016-07-09 Lasarte-Oriako udalak antolatutako 'Kultura Auzoetara' ekimenaren baitan, argazki rallya egin zen Orian. Zenbait herritar eta zaletuk hartu zuten parte rally horretan, Raquel Rodriguezen gidaritzapean. Argazkilari bakoitzak 30-40 minutu izan zituen aurrez emandako gaiekin lotutako argazkiak ateratzeko: esertzeko bankuak, paretak, haur parkea, more kolorea…askotarikoak izan ziren gaiak. Ateratako argazkiekin 'La Esperanza' auzo elkartean erakusketatxo bat jarri zuten.

Harrera Saharako lagunei

2016-07-12 Udalak lagunduta, lau neska eta lau mutil saharar hartu ziren herrian, Oporrak Bakean programaren baitan. 10 eta 12 urteko haur horiek uztailaren 2an iritsi ziren eta abuztuaren 31ra arte egon ziren herriko familiekin. Harrera ekitaldian, udal ordezkariek hainbat opari egin zizkien, eta Udako Txokoetako haurrek kamisetak ere eman zizkieten.

Herritar ugari Marimurumendi mendi maratoian

2016-07-13 Hainbat lasterkari lasarteoriatarrek hartu zuten parte Beasainen jokatutako Marimurumendi mendi maratoian. 42 kilometro pasatxoko ibilbidea osatu zuten.

Zazpi lasarteoriatarrek ekin zioten probari, baina bost iritsi ziren helmugara: Javier Olazagoitia (46. izan zen, 4:59:46ko denborarekin), Jose Ignacio Elvira (47. 4:59:48ko denborarekin), Jose Ramon Mendizabal (79. 5:32:12ko denborarekin), Joseba Iparraguirre (80. 5:32:12ko denborarekin) eta Iraitz Pikabea (177. 7:38:43ko denborarekin). Peio Fadrique eta Josean Hernandezek erretiratu egin behar izan zuten, nekeagatik eta bizkarrean jasotako kolpe gogor baten ondorioz, hurrenez hurren.

'Sasoeta Sasoian' auzo elkartearen aurkezpena

2016-07-15 Sasoeta auzoak badu, bigarrenez, auzo elkartea. 'Sasoeta Sasoian' Auzo Elkartearen aurkezpena egin zuten. Zenbait auzotarren kezka eta nahiak bultzatuta sortu zen ekimena. Orduko horretan 20 bat lagun elkartu ziren, elkartearen berri izan eta beraien ideiak plazaratzeko.

Umoretik, 'Flux'

2016-07-15 Zanguango Antzerki Taldeak, 'Flux' ikuskizun entretenigarria eskaini zuen, Okendo Plazan. Alfonbra gorriaren laguntzaz, aktore eta herritarren pasabide bilakatu zen Okendo.

Ekintza solteen bitartez, gizarteko jokabide eta egunerokotasunaren gogoeta sustatu zuten Zanguango Antzerki Taldeko partaideek, beti ere, umoreaz baliatuz.

Oriako Karmengo Ama jai arrakastatsuak

2016-07-16 Festa giroan esnatu ziren Oria auzoan. Oriako Karmengo Ama jaiak ospatu zituzten eta askotariko ekitaldietan parte hartu zuten.

Goizeko lehen ekitaldien ostean, eguerdian, meza nagusia izan zen Karmengo kaperan eta jende ugari gerturatu zen entzutera.

Etxeko txikienen txanda izan zen arratsaldean. Ur-jolasak, globo-gerra eta puzgarriak izan ziren, Bruneteneako lorategian. Gauean,

Usurbilgo Udalari lur-eremu eskaera

2016-07-13 PSE-EEk ohiko udalbatzarrean azaldu zuenez, Lasarte-Oriako Udaleko Kirol instalakuntzak txikiak geratu dira. Herritar eta kirol elkarteen beharrei irtenbidea emateko kiroldegi eta entrenamendu zelai berria eraiki behar da.

Futbol zelai berria Atsobakarreko parkean egin eta honi atletismo pista bat ere gehitu ahal zaiola ere aipatu zuten. Baina proiektua aurrera eraman ahal izateko, lur sailaren jabe den Usurbilgo Udalaren onespena behar da.

Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udalak Usurbilgo Udalari eskatu zion Atsobakarreko lur-eremuak Lasarte-Oriaren esku utzi eta kirol instalakuntzak egin ahal izateko dagozkion hirigintza-irizpideak egiteko.

musikak hartu zuen Oria auzoa. Askotariko emanaldiak izan ziren.

Honetaz gain, 'Psicoacoustic' herriko musika taldeak kontzertua eskaini zuen Bruneteneako lorategiko kioskoan. 'The Beatles' taldearen doinu ezagunetan oinarritutako emanaldi atsegina eskaini zuen taldeak. eskaini zizkieten bertaratutako guztiei. Giro bikaina sumatu zen publiko eta musika taldearen artean, eta dantza egitera animatu zen bat baino gehiago.

SARE

Gaixo dauden presoen egoera salatzeko ekitaldia

2016-07-16 Osasungintzan diharduten Lasarte-Oriako 55 langilek berretsitako manifestua irakurri zuten herriko Sare taldeko kideek Santa Barbaran Hernaniko kideekin egindako ekitaldian.

Osasun arloko langileek espetxeetan segurtasun arrazoiek osasun eskubidearen gainetik lehentasuna dutela salatu zuten.

Bukatzeko, manifestuan pertsona guztien osasunerako eskubidea eta gaixotasunen tratamendua zein zaintza ahalik eta era egokienean jasotzeko eskubidea aldarrikatu zuten.

Elkarbizitza lantzen

2016-07-16 Lasarte-Oriako Villa Mirentxun egin zuen Elkarbizi taldeak programaren zazpigarren ikastaroa.

Ikastaro horretan "elkarbizitza, indarkeria eta legitimitatea" izan zuten aztergai. Estitxu Alkorta EAJko zinegotziak eman zion hasiera ekitaldiari eta Imanol Lizarralde eta Joxan Rekondo aritu ziren hizlari, helburua; "Bizikidetza demokratikoa nagusi den egoera batean, zein subjekturi dagokio gizartea eta gizartekideak babesteko legitimitatea?" galderari erantzutea izan zen.

Jazz erritmoko larunbata

2016-07-23 Jazz musika emanaldia eskaini zuen Igor Letona Jazz Quartet taldeak Zumaburun, 'Kultur Kale Zikloa' programaren baitan. Herritar ugari gerturatu ziren emanaldiaz gozatzera; taldeak ikuskizun ederra eskaini zuen gitarra, saxofoi, kontrabaxu eta bateriaren laguntzaz.

Askotariko artisau produktuak XXXII. Santa Ana azokan

2016-07-24 Urtero moduan, XXXII. Santa Ana artisauen azokak hartu zituen Okendo eta Antonio Mercero Plazak. Egun osoan zehar, artisautza produktuak eta jaki zein edariak ikusi nahiz erosi ahal izan ziren. Horrez gain, Andoni Luis Aduriz sukaldari ospetsua omendu zuten. Berrikuntza gisara, aipatzekoa da Hipodromoaren mendeurrena zela kausa, etxeko gaztetxoenentzat poniak izan zirela goizean zehar.

Eguraldia goibela izan zen, baina jendea goizeko lehen orduetatik animatu zen azoka ikusi eta produktuak erostera.

Donejakue bideko seinale berriak herrian

2016-07-27 Donejakue Bidea Lasarte-Orian barrena markatzen duten seinale berriak jarri ziren. Udalak jakinarazi zuen turismoa garatzeko asmoz burutu zuela ekintza hori, Donejakue Bideak eskualdean barrena egiten duen ibilbideari balio handiagoa emateko asmoz. Denera lau seinale berri jarri ziren, Saiatz bidea deritzonetik erromesaldia egin nahi dutenak hobeto orienta daitezen.

L-O UDALA

Suak argitutako gaueko kale ikuskizuna

2016-07-29 Herriko kaleak hartu zituen Deabru Beltzak kale-antzerki konpainiak, eta 'Su á feu' ikuskizun erakargarria eskaini. Musika eta sua uztartu zituen aipatu taldeak.

San Inazio jaiak Basaundi auzoan

2016-07-30/31 Oriako Basaundi auzoa San Inazio eguneko ospakizunetan murgildu zen.

Igande bezperan hasi ziren ospakizunak: mus txapelketa, apar festa gaztetxoentzat, ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol norgehiagoka, tortilla patata lehiaketa eta Gotzon DJ zein Ibai Berriak musika taldearen kontzertuaz gozatu zuten auzotarrek.

San Inazio egunean ere ekintza ugari egin zituzten. Goizean goiz martxa erregulatua abiatu zen Basaundi enparantzatik. Beranduxeago, galeper botatzea egin zuen Buruntz-Azpi elkarteak, gaztetxoak hainbat jolasetan eta buruhandi artean ibili ziren bitartean. Eguerdian Meza Nagusia egin zen Karmengo Ama kaperan, eta bote eta toka txapelketak jokatu ondoren. Indarrak berreskuratzeko bazkari herrikoia egin zuten Oriako frontoian. Arratsaldean, gaztetxoak berriro ere jolasean ibili ziren puzgarri artean, eta auzotarrek perkusio doinuekin amaitu zituzten jaian, Dinbi Banda taldearekin batera.

Santa Ana egun oparoa

2016-07-26 Brigitarren komentuko mezarekin eman zitzaion hasiera Santa Ana egunari. Erketzeko kideek dantza egin zuten karkabaren aurrean; hori eta gero, hamaiketako herrikoiarekin hartu zituzten indarrak.

Arratsaldean, pala txapelketako final nagusia jokatu zen Loidibarren pilotalekuan. Xenki Astiazaran eta Iñigo Arluziaga izan ziren garaile, Xabier Arteaga eta Beñat Esnaolari 30-19 irabaziz. Hirugarren postua Jon eta Mikel Begiristain anaiek eskuratu zuten.

Gauean berriz, eguneko ekitaldi nagusiak hartu zuen Okendo plaza: Santa Ana parodia.

Solano familiak jaso zuen aitortza, "belaunaldi desberdinek pilota sustatzeko egindako lanagatik".

Ondoren hasi zen antzerkia. Gai ugari ukitu ziren emanaldian zehar: udalbatzar aretoko aulkien polemika, kiroldegi berriaren egitasmoa, 'Yo soy de Lasarte-Oria' Facebook taldea… Ikuskizunaz gozatzera gerturatu ziren herritarrek barre-algara ugari egin zituzten, basajaunek bi akusatuak sutara bidali eta nola erretzen ziren ikusi aurretik.

Garcia
AUTOBUSAK
Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ
Tel: 943 37 27 37
info@garciabus.com
www.garciabus.com
Garcia
Urte berri zoriontsua izan dezazuela!
• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
• Bestelako zerbitzuak

Abuztua

Maialen Chourrautek urrezko domina Joko Olinpikoetan

2016-08-11 "Ametsa eskuetan daukat". Hitz horiek erabili zituen Maialen Chourraut herriko piraguistak, K1 modalitatean urrezko domina irabazi berritan, Rioko Joko Olinpikoetan. Euskal kirolari batek bakarka eskuratutako bigarren urrea izan zen, eta emakumezko baten lehenengoa. Eta baita Lasarte-Oriaren palmareseko aurrenekoa ere.

Erakustaldia eman zuen Maialenek final handian: 96.85 segundotan burutu zuen jaitsiera erabakigarria, sailkapen orokorrean hiru segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Zeelanda Berriko Luuka Jones-i. Jessica Fox australiarrak osatu zuen podiuma.

Riora joan aurretik, herritarrak zioen helburua bere onena ematea zela, eta ametsa, urrezko domina janztea.

2016-08-16 Nely Carla Alberto, dominengatik lehiatzetik at geratu zen. Espainiako eskubaloi selekzioak, Nely Carla Alberto lasarteoriatarra tartean, ezin izan zuen duela lau urteko balentria errepikatu Rion. Final-laurdenak jokatu zituen Frantziaren aurka, eta norgehiagoka osoan zehar aurretik joan ostean, arauzko denbora betetzeko 26 segundo besterik falta ez zirela, Frantziak 26-27koa sartu eta finalerdietara sailkatu zen.

Herritarrak ezin izan zuen norgehiagoka hori jokatu, Angolaren aurkakoan hatz bat hautsi zuelako. Azkenean, taldea seigarren izan zen sailkapenean, eta diploma olinpikoa eskuratu zuen.

Hipodromoaren 100 urteak argazkietan

2016-08-23 Hipodromoaren historia errepasatzeko aukera paregabea eduki zuten herritarrek '100 urte Hipodromoan' erakusketan. Argazki eta objektu ezberdinen bitartez, kirol-eraikin horren ibilbidea jaso zuten. Jesus Zaballos alkateak zein Peio Urtasun eta Marta Pastor Hipodromoko ordezkariek hartu zuten parte irekiera ekitaldian. Denera 150 argazki jarri zituzten ikusgai, eta baita material historikoa ere: esaterako, 75. urteurrenean entregatutako Urrezko Kopa.

Kirolari olinpikoei omenaldia herrian

2016-08-24 Gure herria Rioko Joko Olinpikoetan ordezkatu zuten bi herritarrek, Maialen Chourraut piraguistak eta Nely Carla Alberto eskubaloi jokalariak, merezitako omenaldia jaso zuten.

Lehenik eta behin, Lasarte-Oriako Udalak prestatutako ekitaldi instituzionala ospatu zen. Jesus Zaballos alkatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol sailburu Denis Itxasoren hitzaldien ostean, bi kirolariek herriko intsignia jaso zuten. Tartean, Zero Settek 'Ipanemako neska' abesti ezaguna interpretatu zuen.

Udaletxeko balkoitik behean zain zuten jendetza agurtu ostean, kalera irten ziren Maialen eta Nely Carla, herritarren berotasuna jasotzera. Okendo plazara joan ziren, desfilean, eta oholtzara igo. Herriko kirol elkarte desberdinen aitortza jaso zuten eta galderatxo batzuk ere erantzun zituzten.

Esperientzia ahaztezina, hasi eta buka

2016-08-28 Javi Olazagoitia eta Gorka Mateo herritarrek Ultra Trail Mont Blanc proba ezagunean aritu ziren. Kontatu zigutenez, esperientzia ahaztezina izan zen, hasi eta buka.

Frantzia, Suitza eta Italiako lurrak egun gutxitan zapaltzeko modu bat baino gehiago dago. Javi Olazagoitiak eta Gorka Mateok erabilitako bidea ez da izan erosoena, baina zirraragarriena bai, ziurrenik. UTMB proba ezagunean aritu ziren.


G. Mateo

Iraila

Zumaburu eraikina, itxita

2016-09-02 Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko HH mailetako ikasleek 2016-2017 ikasturte berria Sasoetako eraikinean eta Euskaltegi zaharreko ikasgeletan hasi behar zutela jakin zen. Zumaburuko eraikinak itxi egin behar izan zuten, segurtasun arrazoiak zirela eta. Udan zehar zaharberritze lanak egin zituzten aipatu eraikinean, eta prozesu horretan ikusi zuten zenbait patologia izan zitzakeela ikastetxeak. Teknikari aditu bati aholkua eskatu ostean, arazoak ikertu ziren, eta laginak hartu laborategian probak egiteko.

Ikasturte hasiera herrian

2016-09-07 2016-2017 ikasturtea berrikuntza eta ezustekoekin hasi zen Lasarte-Orian. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko HH mailakoek Zumaburuko eraikinetik kanpo hasi behar izan zuten urtea. Bestalde, Landaberri BHI eta Lasarte-Usurbil Institutuko bateratzearen lehen pausoak eman ziren: DBH 1 mailan nahastu ziren bi zentroetako ikasleak.

Aurtengo Kultur Kale Zikloari agur

2016-09-10 Hugo Silveira eta Naldo Gomes musikari brasildarren emanaldiak itxi zuen aurtengo Kultur Kale Zikloa. Atsobakar auzoan aritu ziren, kutsu brasildarreko hainbat doinu eskainiz ikusleei: pop, rock, soul eta funk estiloko abestiak interpretatu zituzten.

Aurreko astean, Pj Kahuna eta Sara Grajal musikarien kontzertua izan zen, iluntzean, Tximistarreta parkean. Pop, Rock, Soul eta Country estiloko musika emanaldia eskaini zuen aipatu bikoteak.

Gaztelekuko nerabeen zerbitzua lehiaketara

2016-09-12 Udalak lizitaziora atera zuen NZP Nerabeentzako Zerbitzu Polibalentea. "NZPak erreferentziazko zerbitzu publiko bihurtu nahi du", azpimarratu zuten. Eskaintza arreta ematen dien gazteen premietan nahiz eskarietan oinarritu zen. Espazio hori 11 eta 17 urte bitarteko herriko gazteei dago zuzenduta.

Intza Fernandez bosgarren Kontxako Banderan

2016-09-11 Getaria-Zarautz traineruan aritu zen arraunean Intza Fernandez herritarra. Denboraldia amaitu aurretik, kostako taldea Donostiako Kontxako Banderan lehiatu zen. Lehenengo asteburuan lau onenen artean sartu bazen ere, bigarrenean ezin izan zuen postu hori mantendu eta bosgarren izan zen sailkapen orokorrean. San Juanek astindu zuen bandera. Lehiaketa gazigozoa izan zen herritarrarentzat, aurreneko asteburuan entrenatzaileak ez zuelako hamahiruko taldean sartu. Bigarrenean, ordea, jo eta ke aritu zen Kontxako uretan.

Herriko kirol zerbitzuari Maialen Chourrauten izena

2016-09-13 Ikasturteko lehenengo udalbatzarreko erabaki azpimarragarriena izan zen Udal Kiroldegiari Maialen Chourraut izena jartzeari buruzkoa. Korporazioko kide denek aho batez onartu zuten Alkatetzak egindako proposamena. Aipatzekoa da kirolariaren izena ez duela hartu eraikinak berak, baizik eta herriak eskaintzen duen kirol zerbitzuak.

Euskararen 9. Maratoia Donostian

2016-09-14 Koldo Mitxelenan egin zen Euskararen 9. Maratoiaren aurkezpena. Horretan, herriko eragileekin batera, Mikel Irizar Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendariak hartu zuen parte. 40 eguneko erronkari buruz luze eta zabal aritu ziren Jon Antxordoki herriko Euskara Batzordeko zinegotzia, Naiara Mujika Ttakun KEren ordezkaria eta zortzikoteko Joxe Mari Agirretxe eta Oihana Fu Otaegi.

Mikel Rodriguez herritarra garaile Vias Verdes maratoian

2016-09-11 Andoainen bizi den Mikel Rodriguez Montaño herritarrak Plazaolako Vias Verdes maratoia irabazi zuen. Sekulako lasterketa osatu zuen, errekorra bost minututan onduz eta bigarren sailkatuari hamabi minutu ateraz. Bi ordu, 27 minutu eta lau segundo behar izan zituen Rodriguezek 42 kilometroko ibilbidea osatzeko.

I. Xakobeo Azoka herrian

2016-09-16/18 Herriko Kale Nagusia eta Okendo zein Elizatze plazak apain-apain agertu ziren, Erdi Aroko giroan murgilduta: denetik erosi, jan, usaindu eta bizi ahal izan zuten herritarrek asteburuan zehar. Produktuak bakarrik ez, eskaintza kulturala zabala eta anitza izan zen. Eguraldi ezin kaskarragoari aurre eginda, herritar ugari animatu ziren azokan zehar ibilalditxo bat egitera.

Gipuzkoako 1go mailan debuta eta garaipena

2016-09-17 Intza KEko pilotariek ederki hasi zuten Gipuzkoako 1go mailako ibilbidea. Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako bikoteak garaipena erdietsi zuten debuteko partiduan, Aurrera Saiaz taldearen kontra, Tolosako Beotibar pilotalekuan: 22-14 gailendu ziren herritarrak.

Buruntzaldea IKTko kideak Gipuzkoako Igeriketa Galan

2016-09-17 2015/2016 sasoiko itxiera-gala ospatu zuen Gipuzkoako Igeriketa Federazioak. Legazpiko Latxartegi zineman elkartu ziren klub desberdinetako igerilari, entrenatzaile eta ordezkariak. Tartean, Buruntzaldea IKTkoak. Kide ugarik sariak jaso zituzten: Ainhoa eta Leire Martin ahizpek, Unai G. Somovillak, Iñigo Ibarburuk eta B kategoriako gizonezkoen taldeak. Modu horretan, ezin hobeto bukatu zuten denboraldia.

Buruntzazpiri agur, podiumeko maila gorenetik

2016-09-18 Buruntzazpi taldeko maillot berde-urdina zazpi urtez jantzi ostean, agur esateko unea iritsi zitzaion Iñigo Altunari. Modu ezin hobean bukatu zuen herritarrak: erakustaldia eman zuen Oñati eta Zegama artean jokatutako Mendiko Kriteriumean; hirutik bi etapa irabazi zituen, mendian nagusi izan zen eta sailkapen orokorra poltsikoratu zuen. Egun afizionatu mailako Jira Bira Track talde zarauztarrean ari da Altuna.

Merkataritza indartu eta aktibatzeko hitzarmena

2016-09-19 Aterpea Merkatari-elkartearen eta Lasarte-Oriako Udalaren arteko 2016 urteko hitzarmena sinatu zen udaletxe berrian. Jesus Zaballos alkateak eta Aterpeako lehendakari Ramon Ormazabalek sinatu zuten akordioa.

Amaia Andres Gipuzkoako Atletismo Federazioko presidente

2016-09-20 LOKEko atletismo alorreko prestatzaile eta klubeko presidente Amaia Andresek beste erronka bat hartu zuen bere gain: GAF Gipuzkoako Atletismo Federazioko lehendakaritza, Mikel Odriozolaren lekukoa hartuz. Andresena izan zen aurkeztutako hautagaitza bakarra.

Mugikortasun jasangarria sustatzen

2016-09-23/24 Europa mailako ekimenarekin bat eginez, Udalak eta Artelatz enpresak Mugikortasun Astea egin zuten. Bizikleta izan zen ekintzen ardatza.

Lehenik eta behin, DBH mailako bi ikastetxeetan, Landaberri BHIn eta Lasarte-Usurbil BHIn, bizikletan ibiltzeari buruzko aholkuak eskaini zituen aditu batek. Ikastaro horiek izan dira aurtengo berrikuntza nagusia.

Horrez gain, gaztetxoentzako bizikleta martxak, Kale Nagusian jolasak eta Okendo plazan bigarren eskuko azoka antolatu ziren. Arduradunak gustura azaldu ziren herritarrek ekimenei emandako erantzunarekin.

Merkealdi bereziak

2016-09-24 Lasarte-Oriako herritarrek hainbat produktuak merke erosteko aukera izan zuten. Aterpea elkarteako dendek urtero legez, stock azoka berezia ospatu zuten. Komertzioek denboraldiko soberakinak kalera atera zituzten, hainbat karpatan, eta salgai jarri zituzten, prezio onean. Merceria Aritza, Bazar Abreu, Alba Moda, Merceria Olmi, Urruzola mertzeria, Iturbe zapata-denda, Complementos Alda, Kattagorri Jolas, Donna Boutique eta Ola enmarcaciones dendetara hurbildu ziren herritarrak, eta hainbat pagotxa eraman zituzten etxera.

'Landaberri, mende erdi'

2016-09-19/10-01 Ekintzaz betetako egitaraua prestatu zuten Landaberriko kideek, sortu zenetik 50 urte betetzen zirela ospatzeko. Iraila erdialdetik urri hasierara arte luzatu ziren aipatu ekimenak.

Batetik, gaur egungo ikasleekin batera mural erakusketak eta Porrotxen bihurrikeriak ikusi eta ikasle ohi izandako kirolarien bisita jaso zuten.

Ikastetxetik kanpo, ordea, beste hainbat ekintza egin zituzten: argazki eta bideo erakusketa Antonio Mercero aretoan, ikastolako eraikinen ibilbidea osatu trikitilari eta ikasleekin, hainbat ikasle ohiren bizitza ezagutu, Kike Amonarrizen hitzaldia entzun, 'Bertso berriak Landaberrin ibilitakoek jarriak' bertso-saioaz gozatu, Xumela abesbatzarekin kantu jira berezia, Eriz magoaren ikuskizuna gaztetxoenentzat, Euskal Olinpiadak Michelinen, rock kontzertuak Okendon, ipuin kontalariak Okendon, antzerkiak kultur etxean, eta, ospakizunei amaiera biribila emateko, bazkaria Michelingo pilotalekuan.

Ekintza horiez guztiez gain, urteurrenaren abestiaren koreografia grabatu zuten Landaberri BHI eraikinean.

ISU Leihoak garaile ligako lehen partidan

2016-09-24 Gipuzkoako areto futboleko lehenengo mailan, derbi erakargarria jokatu zuten Lasarte-Oriako Cecilia Kebab Lasarte Ostadar eta ISU Leihoak taldeek udal kiroldegian. Jokoaren hasieratik, etxeko taldea mendean hartu zuen ISU Leihoakek eta partida guztian zehar defentsa eta atakean egindako lan onari esker, markagailuan bat eta bosteko aldearekin norgehiagoka irabaztea lortu zuen Eneko Molinaren taldeak.

PSE-EE nagusi Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan

2016-09-25 2.078 bozkarekin PSE-EE gailendu zen herrian, Eusko Legebiltzarra osatzeko hauteskundeetan. Hala ere, oso gertu geratu zen Eusko Alderdi Jeltzalea, 2.023 bozka eskuratuta. Hirugarren lekuan EH Bildu geratu zen 1.882 bozkarekin; galera esanguratsuena herrian Elkarrekin Ahal duguk jasan zuen, 1.356 botorekin, orokorretan eskuratutako 2.883 bozketatik urrun. Gainontzean, PPk 699 bozka eskuratu zituen, eta Ciudadanosek, 218. Parte hartzearen datuari dagokionez, hauteskunde orokorrekin alderatuta, 12 puntutan jaitsi zen: %60,21ekoa izan zen parte hartzea gurean. Guztira, 14.141 herritar zeuden deituta botoa ematera.

Raul Gomez Margallo hirugarren Baxurde Krosean

2016-09-25 Herriko lasterkari Raul Gomez Margallo podiumera igo zen Usurbilgo Baxurde Krosaren IX. edizioan. 35:04 minututan osatu zuen 10 kilometroko ibilbidea.

Iñaki Garcia usurbildarra gailendu zen, 34:47ko denbora eginez. Gomez Margalloz gain, Lasarte-Oriatik joandako beste 23 lasterkarik zeharkatu zuten proba horretako helmuga-lerroa.

42 kilometroz korrika Berlinen

2016-09-25 Bi lasarteoriatar Berlinera joan ziren, 42 kilometroko maratoi ospetsua egitera: Aitor Otamendi eta Mikel Villarroya. Esperientzia paregabea bizitu zuten, eta ibilbidea osatzea lortu. Turismoa egin eta Alemaniako hiriburua ere ezagutu zuten biek.

Semblante Andaluzen Aste Kulturala Okendora

2016-09-26/10-02 Semblante Andaluz elkartean festa giroa ez da inoiz falta, eta aste horretan, Aste Kulturalean murgildu zen. Astean zehar, karta joko lehiaketak eta dardo txapelketa izan ziren. Asteburuan, Okendon izan zen festa giroa. Andaluziako kultura erakusten zuen emanaldi ugari izan ziren, baita hemengoa ere. Horien artean azpimarragarriak, Jon Maia bertsolariaren saioa edo Xumela koruaren emanaldia.

Parkeak estaltzeko hausnarketa

2016-09-28 'Euritan ere jolasean!' proiektuaren barruan, herritarrek zein eremu estali nahi dituzten erabakitzeko hiru tailer egingo ziren. Lehen saioan auzo bakoitzean egon daitezkeen beharrak zehaztu ziren. Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatu nahi zuen ekintza honetan.

Gastronomiaz gozatzeko astea

2016-09-26/30 Martin Berasategi sukaldariaren proposamenari jarraiki, Aste Gastronomikoa antolatu zen lehenengoz. Aste osoan zehar plater eta pintxo bereziez gozatu zuten herritarrek, bi ekimenetan: 'Plater gastronomikoa eta 'Pintxo pote gastronomikoa'.

Berasategik berak aukeratu zituen plater eta pintxoak egiteko osagaiak: hegaluzea, tomatea, antxoa eta piperrak.

Platerei dagokienean, lau saio desberdin egin zituzten hainbat elkartetan: Intzan Yolanda tabernako kideak aritu ziren lanean, Txartel Txokokoak Buruntzazpin, Sanchokoak Guadalupe Extremadura etxean eta Goiegi jatetxekoak Udaberrin.

Bestalde, ostegun eta ostiralean pintxo potea egin zen ondoko tabernetan: 2KN, Abend, Ainhoa, Arkupe, Avenida, Buenetxea, Furia Beltza, Genesis, Izkiña, Izurde, Gure Etxea, Hiru Aldeta, Ilargi, Insausti, Jalgi, Juantxo, Lasarte, Lavie, Trumoi, Txanpa, Viña del Mar eta Yolandan.

Urria

Nagusien omenaldiko ospakizunak

2016-10-01/08 Biyak Bat elkarteak adinekoen omenaldi astea ospatu zuen beste urte batez, Udalarekin elkarlanean prestatutako egitarau zabala gauzatuz. Biyak Baten egoitzan bandera igo eta agurra dantzatzearekin batera lehertu zen festa.

Isla Plazan jokoak, bingo lehiaketa, meza nagusia, Amaia Gonzalez Caballeroren emanaldia, bazkari herrikoia, gimnasia erakustaldia, dantza lehiaketa, urrezko ezteiak bete dituzten senar- emazteei aitortza...herriko adineko pertsonek omenaldi ederra jaso zuten, ekintza horietan guztietan parte hartuz.

Orfeon Logroñes, doinu ezagunez gozatuz

2016-10-03 Orfeon Logrones abesbatzak emanaldi ederra eskaini zuen Brigitarren komentuko kaperan. Diego Martinezen zuzendaritzapean, abesti ezagunak interpretatu zituzten: 'Down in the river', 'Los chicos del coro' edota 'La vida es bella'.

Orfeon Logroñes herriko Alboka abesbatzak gonbidatuta etorri zen herrira. Apirilean berriz, Albokako kideak izan ziren Errioxa aldera joan zirenak. Elkartruke hori biribiltzeko, bapo afaldu zuten bi abesbatzetako kideek Semblante Andaluz elkartean.

Raul Gomez Margallo 2. Donostiako bost milietan

2016-10-06 Raul Gomez Margallo lasterkari herritarra podiumera igo zen beste behin. Bigarren helmugaratu zen '5 milia buru osasunaren alde' lasterketan, Donostian. Ibilbideko zortzi kilometroak 25:46ko denboran osatu zituen.

Estalpeak mintzagai

2016-10-10 Lasarte-Oriak abian jarritako 'Euritan ere jolasean!' proiektuaren bigarren fasetik hainbat ondorio atera zituzten parte-hartzaileek. Hiru tailer egin zituzten. Horietan, herriko zein gune estaliko diren aztertu zen. Denetara, herriko sei eremu estaltzeko proposamena bildu zen: Okendo, Askatasuna eta Andatza plazak, Atsobakar, Dorre parkea eta Zumaburu.

Euskaldunak eta karolingiarrak

2016-10-10 Herrian bizi den idazle andoaindar Iñaki Lopez de Luzuriagak 'Euskaldunak eta Karolingiar iraultza' liburua aurkeztu zuen Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Bertara gerturatu ziren herritarrek idazlearen ahotik ezagutu zituzten egindako lanaren xehetasunak.

Goi Erdi Aroko euskal eta europar identitatearen sorreraren inguruan azterketa egin zuen, XVIII. mendeko historiografia ikertuz. Hiru urtez gaia aztertu eta gero animatu zen liburua idaztera. Atzerrian bizi zela, Wikipedian sortutako eztabaida baten harira goi Erdi Aroko dokumentu batzuk topatu zituen ingelesez, eta blog batean hasi zen gai horri buruz idazten. Iruditu zitzaion esparru horretan hutsune bat zegoela eta historiografia aztertzen hasi zen.

Bi domina Esteban Martinezentzat

2016-10-12/13 Esteban Martinez seniorrak zilarrezko eta brontzezko domina bana kolkoratu zituen Ferrolen (Galizia). Zilarrezkoa taldeka eskuratu zuen, eta bakarka brontzezkoa, 81 kilo azpikoen kategorian, bost borrokaldi gogor eta lehiaturen ostean.

Kale Nagusiko kale-argiak, aldatuta

2016-10-13 Lasarte-Oriako Udalak Kale Nagusiko argiak berritu zituen. Zehazki, Tajamarreko biribilgunetik hasi eta Ola Kalea arteko biribilgunera arteko argiak aldatu zituzten. Hornidura herriko Setalde enpresari esleitu zitzaion eta 49.610 euroko aurrekontua izan zuen. Farola horiek kontsumo baxukoak dira.

Omenduen aukeraketa herritarren esku

2016-10-13 Urriko ohiko udalbatzarrean hainbat gai jorratu zituzten alderdiek. Besteak beste, erabaki zuten parte-hartze prozesu bat jartzea martxan San Pedro jaietan nor omendu herritarrek erabaki ahal dezaten Bestalde, jakinarazi zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko duela bere gain Atsobakar zahar etxeko kudeaketa, 2017an.

Sasoetak auzoko jaiak berreskuratu zituen

2016-10-14/15 Sasoeta Sasoian auzo elkarteak Udalaren eta auzoko merkatari, ostalari, elkare eta auzokideen laguntzaz, Sasoeta auzoko jaiak antolatu zituen hainbat urte eta gero. Jaizkibel plazan eta Sasoeta auzoko kaleetan hamaika ekintza egin zituzten. Tartean, 70-80. hamarkadetan auzoan zehar egiten zuten danborrada.

Horrez gain txupinazoa, haurrentzako jokoak, musika emanaldiak, magia erakustaldiak eta beste hainbat jarduera egin ziren asteburuan zehar. Antolatzaileek oso positiboki baloratu zuten jaiak berreskuratu izana, eta herritarren parte-hartze handia goraipatu zuten.

Aitor Manso kart gidariarekin hitzarmena

2016-10-14 Lasarte-Oriako Udalak akordioa sinatu zuen Aitor Manso kart gidari gaztearekin eta familiarekin, pilotu gaztea diruz laguntzeko. 1.800 eurokoa izan da laguntza, zehazki.

Euskal Herriko Karting txapelketa irabazi du Mansok, aurten laugarrenez. Hurrengo urtean kategoria berean lehiatuko da gaztea.

Buruntzaldeako ibilbideak mugikorrean

2016-10-14 Berrikuntza aipagarri bat iragarriz aurkeztu zituzten aurtengo Buruntzaldeako ibilbideak: osatu beharreko ibilbideak mugikorrean eraman ahal izateko aplikazioa sortu zuen Rafa Cabanillas herritarrak: informazioa PDF formatuan inprima zitekeen, GPSan txertatu edota app moduan eskuratu.

Anekdota gisara, esan irteera orduak Euskararen Maratoiaren igande goizarekin egin zuela bat.

Udazkenari ongi-etorria Zabaleta auzoan

2016-10-14 Urtero legez, udazkenari ongi etorri berezia egin zioten Zabaletako auzotarrek. Ospakizunei hasiera emateko, Gurutze Irazusta herritarrak gorputzari eta diafreoari buruzko hitzaldia eskaini zuen. Diafreoak norbere indarrekin bat egin eta norbera bere bizipozaren jabe egiten laguntzen du.

Solasaldiaren ostean, sardin-jana herrikoia egin zuten auzotarrek, Udal Musika eskolako trikitilariek girotuta.

Bateragune kasuari buruzko solasaldia

2016-10-14 Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz Rafa Diez herritarra eta beste zenbait kide atxilotu zituztela zazpi urte igaro zirela eta, Bateragune auzia berriro ere gogora ekarri zuen Xirimiri elkarteak, Manuel Lekuona kultur etxean mahai-inguru bat antolatuz. Arnaldo Otegi, Laura Mintegi eta Joxe Mari Agirretxek hartu zuten parte horretan, Iñaki Petxarroman kazetariak gidatuta.

LAB sindikatuko idazkari ohia da oraindik ere preso dagoen kide bakarra. Kartzela-zigorra 2017ko abuztuaren 31n beteko du oso-osorik, baina eskatua du murrizketa.

Erraustegiaren aurkako protesta ekintza

2016-10-15 Zubietan eraiki gura duten errauste plantaren aurkako mugimenduak protesta-ekintza egin zuen Donostian. Bertan izan ziren hainbat herritako plataformak ere, Lasarte-Oriako Aire Garbia tartean.

Gipuzkoako Foru Aldunditik atera eta Santander Bankuaren egoitzaraino kalejira egin zuten. Bertan parte-

40 orduen ostean...40 egunak!

2016-10-22/23 Lasarte-Orian Euskara izan zen protagonista asteburuan. Euskararen 9. Maratoiak jai-giroan murgildu zituen Okendo plaza eta herritarrak: antzerkiak, dantzak, arropa desfileak, musika emanaldiak...oholtza nagusian denetarik ikusi ahal izan zuten asteburuan zehar bertara gerturatu zirenek.

Aurtengo euskararen festak, ordea, ez ditu 40 ordu iraun aurreko edizioetan bezala. 'Baietz 40 egun euskaraz!' herri-erronkan murgildu zen Lasarte-Oria.

Eneko Agirrezabal eta Hoki Guerrero garaile krosean

2016-10-30 Lasarte-Oria Bai! krosak herriko kaleak hartu zituen beste behin. Faboritoek ez zuten hutsik egin: Eneko Agirrezabal segurarra eta Hoki Guerrero hernaniarra izan ziren garaileak. 878 korrikalarik hartu zuten parte helduen lasterketan, eta 1.000tik gora umek Korrika Festan.

Berrikuntza nagusietako bat izan zen patinatzaileek aurrenekoz hartu zutela parte. Maila handiko 30 bat pertsonak irristaka osatu zuten 10 kilometro pasatxoko ibilbidea. Orain, antolatzaileek erabaki beharko dute datozen edizioetan ideia hori mantenduko duten ala ez. Bestalde, Kros Txikiko lasterketen ordena aldatu egin zen; infantilak eta kadeteak izan ziren lasterka egiten lehenengoak.

Kros herrikoiaren XXI. edizioak aho-zapore oso ona utzi zuen antolatzaile eta herritarrengan. Orain, 2017kora itxaron behar.

hartzaileetako batzuk lurrean etzan ziren maindire zuria gainean zutela, gaixo egongo balira bezala. Erraustegiaren kontrako Mugimenduak Ekintza honen bidez, bankuek eta enpresa handiek errauste plantaren eraikuntzarekin irabaziak izango dituztela salatu zuten.

Ikasturte hasiera ederra

2016-10-18 Irakurle Txokoko kideek ikasturte berriari ekin zioten TtakunEnean. Berezia izan zen saioa, Danele Sarriugarte azken hilabeteetan gidari izan zenari agur beroa eta Uxue Alberdiri ongi etorria egin baitzioten, mokadu baten inguruan. Hori baino lehen, Ramon Saizarbitoria idazle donostiarraren 'Lili eta biok' eleberria aztertu zuten.

Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna

2016-10-19 Katxalin elkarteko ordezkariek postua jarri zuten azokan, bularreko minbiziaren nazioarteko egunaren harira. Horretan herritarrei informazioa eskaintzen aritu ziren, eta xingola arrosak ere banatu zituzten. Bestalde, aipatu elkarteko kideekin batera, Udaleko zenbait ordezkarik arrosa kolorez margotu zuten Ganbo Kaleko bankuetako bat. Horrez gain, xingola arrosa udaletxeko balkoiko buru ere jarri zuten, "borroka horretan pertsona eta instituzio guztiek inplikatu beharra dutela gogorarazteko".

Laboa katedrako proiektu saria Ane Labakarentzat

2016-10-20 Ane Labaka Mayoz herritarrak eskuratu zuen Mintzola Ahozko Lantegiak eta Mikel Laboa Katedrak eskainitako hiru sarietako bat. Herritarrak 'Bertsolaritzan garatutako umorea(k), genero ikuspegitik' lana aurkeztu eta 2.000 euro jasoko ditu ikerketa osatzeko.

Odol emaileen Elkartea

Lasarte-Oriako odol-emaileei eskertza

2016-10-23 Oria Beheko odol-emaileen ordezkaritzak antolatutako ekitaldian izan ziren hainbat herritar. Urnietako Oianume jatetxean elkartu ziren aitortza jasotzeko. Gauzak horrela, 25, 40, 50 eta 75 odol-emate eman zituzten 22 lasarteoriatarrek oroigarri bana jaso zuten. Sari-banaketa girotzen dantzariak eta bertsolariak izan ziren.

Kirolaren bitartez herriko merkataritza sustatzen

2016-10-25 Lasarte-Oriako Udalak eta Ostadar SKTk hitzarmena sinatu zuten Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiaren bitartez Tratu On Bat marka sustatzeko. Hainbat akordio hartu zituzten. Batetik, nylonezko 3.000 motxila eman zitzaizkion Ostadarri; Tratu On Bat marka zeukaten serigrafiatuta. Bestalde, lasterketarako prestatutako 2.600 dortsaletan Tratu On Bat marka agertu zen inprimatuta. Azkenik, Udalak 2.000 euroko dirulaguntza eman zion Ostadarri.

Osasun astea herrian

2016-10-24/26 Osasun astea antolatu zuen herrian Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak. Hainbat gairi buruzko hitzaldiak entzun ahal izan zituzten herritarrek: nerabeei alkoholari buruz nola hitz egin, osasun arazoek historikoki eta gizartearen eraginarengatik emakumeengan izan duten eragina eta botikak nola hartu.

Lasarte-Oriako historian murgiltzen

2016-10-27 Duela 9 urte argitaratutako 'Retazos' liburuaren jarraipena idatzi eta aurkeztu zuen Jose Luis Navarro herritarrak. Hainbat artxibo eta liburutan Lasarte-Oriari buruz aurkitutako XX. mendera arteko dokumentuak bildu ditu 'Retazos II' liburuan.

Navarrok idatzitako laugarren liburu honetan, mende ezberdinetako pasadizo ugari aurkezten ditu. "Herritarrek ezagutzen ez dituzten datuak eskaini nahi nituen edo nahiz eta istorioak ezagutu, hauekin lotutako kontu ezezagunak".

Eskola Kirola garatzeko helburuz, hitzarmena

2016-10-28 Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako guraso elkarteekin hitzarmena sinatu zuen Udalak, Eskola Kirola egitasmoa sustatzeko. Denera 44.373 euro jaso zituzten aipatu bi elkarte horiek.

Idoia Cuesta herritarraren lana Cristina Enean

2016-10-20/12-11 Galizian bizi da aspaldi Idoia Cuesta lasarteoriatarra. 2015ean jaso zuen "saskigintza tradizionalari ikuspegi berritzailea emateagatik", estatu mailan artisautza alorrean ematen den sari gorena. Aurten, Cristina Enea Fundazioak gonbidatuta, hainbat lan ekarri zituen Donostiako egoitza horretara eta tailer bat ere eskaini zuen.

Neguko Ligari hasiera, etxean

2016-10-29 Buruntzaldea IKTko igerilariek gure herriko igerilekuan ekin zioten Neguko Ligari. Kategoria desberdinetako 23 igerilari aritu ziren lehian, ederki asko gainera. Maila bikaina eman zuten, eta taldekide guztien artean lortu zuten 35 marka pertsonal berri egitea.

Azaroa

LOKEko judoken dominak Avilesen

2016-11-01 Zeresana eman zuten LOKEko judokek Avilesen jokatutako Espainiako Superkopan. Eneko Eizagirre kadete oriotarrak urrezko domina erdietsi zuen kadete mailan, eta brontzea Fermin Balda herritarrak juniorrenean.

Establezimenduak ere, 'Hozkailu solidarioa' ekimenarekin bat

2016-11-02 Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 'Hozkailu Solidarioa' programaren aldeko beste pauso bat eman du, herritarrak janariaren balioaz eta elikagaiak alferrik ez gastatzeko beharraz kontzientziatzeko helburuarekin. "Premia gehien dutenen pertsonenganako elkartasunaren aldeko apustua ere bada", azpimarratu dute Batzordeko kideek. Baina herritarrez gain, establezimenduek ere 'Hozkailu Solidarioa' programarekin bat egin eta hauek pegatina bereizgarri bat dute.

Ibon Fernandez Iradiren egoera gertutik ezagutzen

2016-11-02 Lasarte-Oriako Sarek antolatuta, Ibon Fernandez Iradi euskal presoaren egoeraren berri emateko mahai-ingurua egin zuten Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Fernandezen abokatu Maritxu Paulus eta arreba Ane Fernandez izan ziren hizlariak; moderatzailea, herriko Sareko kide Ixiar Arteaga. Hainbat herritar gerturatu ziren ekitaldira. Gertutik ezagutu zuten herritarraren gaur egungo egoera zein den.

EHBilduren salaketa alkateak Somoto auzian izan zuen jarrera zela-eta

2016-11-02 Ana Urchueguiaren aurkako kereilaren inguruan hainbat gertakizun jazo dira azken urtean. Miguel Castells abokatuak uko egin dio kereila emateari, eta Pablo Barrio akusazio partikular bezala aurkeztu da. EHBilduk lehen gertaera salatu eta Pablo Barriori bere babes osoa ematen diola jakitera eman zuen. Horrekin batera, alkateak auzian zehar izandako jarrera ere deitoratu zuen.

Horren aurrean, alkateak adierazi zuen "kontzientzia lasai" daukala auzi horren inguruan: "Ez dut oztoporik jarri nahi izan Somoto prozesuan, ezta Ana Urchueguiaren alde egin nahi izan ere".

Etorkinen egoerari buruzko hausnarketa

2016-11-02/12 Gaur egun milaka dira guda, gosea edo beste egoera batengatik bere herrialdea utzi behar izan duten pertsonak. Lasarte-Oriako herritarrak pertsona hauek bizi duten egoeraz kontzientziatzeko asmoz, Topaketa asteak antolatu ziren. Hainbat ekintzek osatu zuten aste berezi horretako egitaraua: Jose Luis Pinilla Apezpiku-konferentziako Migrazio idazkaritzako zuzendariaren hitzaldia, 'Somos migrantes' erakusketa, Amparo Climenteren 'Las lágrimas de Africa' filmaren emanaldia eta afari solidarioa.

Adineko pertsonei laguntasuna emanez

2016-11-03 Lasarte-Orian 'No estás sol@-Ez zaude bakarrik' elkartea sortu berri da. Helburu nagusia helduen bakardadea, isolamendua eta afektu gabezia arintzea da. Pixkanaka zenbait ekintza eramango dituzte aurrera, hala nola, pertsona adinduen etxeetara joan haiek laguntzera. Lasarte-Orian biztanleriaren %20tik gora bakardadean bizi da eta errolda datuen arabera 65 urte gainditzen dituzten 700 pertsonatik gora bizi dira egoera honetan.

Sotto Voce laukoteak girotutako iluntzea

2016-11-04 Harizko lau instrumentuz baliatuta, musika emanaldi atsegina eskaini zuen Sotto Voce laukoteak Lasarte-Oriako Brigitarren Komentuan. Biolinak, biola eta biolontxeloa eskuetan, kontzertu ederra eskaini zuten. Musika estilo anitz eta garai desberdinen artean bidaiatu zuten ikusleek.

Judith Navarro Gipuzkoako selekzioarekin

2016-11-04/06 Hondarribian jokatutako infantil mailako Euskadiko txapelketan aritu zen Judith Navarro, Gipuzkoarekin. Bizkaia eta Arabarekin neurtu zituzten indarrak: partida bat irabazi eta bestea galduta, azpitxapeldun izan zen Gipuzkoa. Euskadirekin entrenatzen hasia da herritarra, deialdian sartu baita; azaroaren 13an burutu zuen lehenengo saioa. Urtarrilean jokatuko den Espainiako txapelketa prestatzen hasi zen taldea. Urtean zehar Donostiako Easo taldean jokatzen du Judith Navarrok.

Finaletik urrats bakarrera

2016-11-05 Gipuzkoako 1go mailako final handia jokatzetik gertu geratu zen Intza KE. Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak osatutako bikoteak Oreretako EPLErekin neurtu zituen indarrak, eta 22-13 galdu zuten. Denboraldi ikusgarria egin du bikoteak Gipuzkoako 1go mailan. Aurten igo dira kategoria horretara, eta maila aise mantentzeaz gain, finalerdiak jokatu dituzte baita ere.

Biktima guztiak oroituz

2016-11-10 Memoriaren egunarekin bat eginez, udal ordezkariek ekitaldi xumea egin zuten Udaletxeko arkupeetan. Alderdi guztiek bat egin zuten PPk izan ezik. Udal Korporazioak onartutako testua irakurri zuen Jesus Zaballos alkateak. Horren ostean, zinegotziek loreak jarri zituzten Udaletxean, Terrorismoaren biktimen omenezko plakaren azpian. EH Bilduko ordezkariek nahiago izan zuten Askatasunaren parkean loreak uztea, "inklusiboagoa" delako gune hori.

Larriki gaixo dauden presoekin elkartasuna

2016-11-11 Lasarte-Oriako Sarek antolatuta, larriki gaixo dauden euskal presoei (Ibon Fernandez Iradi herritarra tartean) elkartasuna adierazteko ekitaldia egin zen Okendo Plazan. Txalaparta doinuak, bertsoak, irakurketa, kanta eta dantza egin zuten bertan bildutako herritarrek.

Etxeko produktuak baserritik plazara

2016-11-12 Laugarren urtez baserrietako produktuen azoka izan zen Okendo plazan. Askotariko produktuak erosi ahal izan zituzten herritarrek bertan: baserriko barazkiak, haragia, gaztak, ogiak, ukenduak eta beste hainbat gauza.

Ospe handiko musikariak XIII. Akordeoi Jaialdian

2016-11-12 Zero Sette akordeoi orkestrak antolatuta, XIII. Akordeoi Jaialdia egin zuten Manuel Lekuonan. Aurtengoan, ospe handiko musikariak izan ziren protagonistak eta sekulako musika emanaldia eskaini zieten ikus-entzuleei. Artista gonbidatuak Susana Cencillo akordeonista eta Javier Perez trompeta-jolea, 'Clak'Tet' taldea eta Julien Gonzales musikari frantsesa izan ziren. Zero Settek ez zuen parte hartu emanaldian, "protagonismo osoa" gonbidatuei utzi nahi zielako.

Herritarrak Behobia Donostian eta Maratoian

2016-11-13/11-27 Urtero legez, hainbat herritar animatu ziren Behobia Donostia lasterketa ezaguna burutzera, batetik, eta Donostiako Maratoia egitera, bestetik. Hamabost eguneko tartean jokatu ziren bi zita garrantzitsu horiek.

Behobia Donostia lasterketan David Martin izan zen lasarteoriatar azkarrena. Ordubete eta hamar minutuko denbora egin zuen. Emakumezkoetan, berriz, Mari Carmen Olaso izan zen herritarren artean helmugaratzen lehenengoa, 01:33ko denbora eginez.

Handik hamabost egunera jokatu zen Donostiako Maratoia, esan bezala. Horretan, David Cordero eta Anabel Eleno izan ziren bizkorrenak. 2:52 eta 3:09ko denborak egin zituzten, hurrenez hurren.

Erraustegiaren aurka elkarretaratze ikusgarria

2016-11-19 Lasarte-Oriako Aire Ttirriki-Ttarraka, txistulari edo Xumelako kideekin batera Jalgi Kafe Antzokira gerturatzen ziren giro lasaian solasean egiteko.

40 eguneko erronka txanda aldaketak

2016-11-04/11-11/11-18/11-25 40 eguneko erronkako lekuko aldaketak egin ziren Sasoeta-Zumaburu ikastetxean. Bertan, bi txanda ezberdinetako Ahobiziak elkartzen ziren. Lehenik, ikerketarako baliagarri zen, dinamika batean hartzen zuten parte.

Ostean, gimnasioan elkartzen ziren. Bertan lekukoa utzi eta hartzen zuten Ahobiziek, baita zortzikoteko kideek ere, Ahobizien testigantzak entzun etaezin musika edo dantza falta. Safri Duoren dantza, 'Txulalai erraldoia' plaza dantzako lagunen eskutik edo Xumela koruko kideen ahotsak entzun ziren gimnasioan.

Azkenik, Dinbi Banda batukada,

'Izan zirelako gara', Ttakun 25 urte

2016-11-16 Ttakun kultur elkarteak 25 urte bete zituen. Hori dela eta, 25. urtemuga berezi hori ospatzeko hiru ekintza antolatu zituen.

Egunean bertan Ttakunenean ekitalditxoa egin eta lokal berria inauguratu zen. Bea Egizabalen eskutik lokala inauguratzeko zinta mozketa berezi eta umoretsua egin zen. Hori baino lehen, txalaparta doinuak eta Tomas Arrizabalaga Ttakuneko lehendakariaren hitzak entzun ahal izan ziren.

Azaroaren 19an, 'Bi Zaldi' taldeak emanaldia eskaini zuen Jalgi Kafe Antzokian. Jende ugari bildu zen Jalgin kontzertuaz gozatzeko asmoz eta izan ziren txaloz laguntzera, abestera zein dantzatzera animatu ziren ikusleak ere.

Honetaz gain, Ttakunek urteurrenaren harira argazki-erakusketa jarri zuen Jalgi bertan.

Garbia herri plataformak deituta, kontzentrazio ikusgarria egin zuten eguerdian Okendo plazan, 'Baietz erraustegia gelditu!' lelopean. Adarraren soinuak jarri zituen martxan plazan bildutakoak: maindire zuriak eskuan, lurrean etzan ziren bertaratutakoak. Erraustegiak osasunean eragin ditzakeen kalteak azaleratu asmoz, ospitaleetako maindire zuriak irudikatu nahi izan zituzten. Etzanda egon bitartean, heriotza ibili zen jendartea mehatxatzen.

Genero indarkeriaren aurkako astea

2016-11-21/12-02 Azaroaren 25ean, Genero indarkeriaren aurkako eguna da. Honen harira Lasarte-Oriako Udalak, Emakumeen Zentro eta beste eragilerekin batera hainbat ekintza antolatu zituen. Aurtengoan sentsibilizazioan eta kontzientziazioan zentratu ziren batez ere.

"Adin guztientzako ekintzez" osatutakoa izan zen egitaraua: ipuin-kontalaria Atsobakar zaharren egoitzan, 'El nunca me pegó' dokumentala eta Irantzu Valeraren hitzaldia, Beldur Barik lehiaketaren sari-banaketa, haurrentzako ipuinak Kontu Kantoiren eskutik eta elkarretaratzea Okendon, besteak beste.

Intza Fernandez Donostiarra taldera

2016-11-21 Getaria-Zarautz utzi (ez du emakumezkoen trainerurik ateratzerik izan) eta Donostiarra taldean hasi da aurten Intza Fernandez herritarra. Donostiarrak aurten atera du estreinakoz emakumeen trainerua. Gazteak dira arraunlari denak, eta, Intzak zioenez, bera izango da beteranoena, 20 urte ditu herritarrak: "Hasiberri asko daude, ni naiz esperientzia gehien daukana; asko baloratzen naute taldean, ea zer nolako maila ematen dugun denboraldian zehar".

Udalaren hitzarmena EDPrekin

2016-11-22 Pobrezia energetikoari aurre egiteko elkarlan akordioa sinatu zuen Lasarte-Oriako udalak EDP enpresarekin. Gizarte Zerbitzuetatik diru-laguntza lerro berria jarri asmo du Udalak, herrian argia eta gasaren faktura ordaindu ezin duten bizilagunek horiei aurre egin ahal izateko.

Maialen Chourraut Donostiako Urrezko Danborra irabazteko hautagai

2016-11-24 Esparru desberdinetako hainbat norbanakoren babesarekin, 2017ko Donostiako Urrezko Danborrerako Maialen Chourrauten hautagaitza aurkeztu zuten. Hainbatek babestu dute honezkero proposamena: Atletico SSren presidente Pedro Garcia, Espainiako Piraguismo Federazioko lehendakari Juanjo Mangas, Naroa Aguirre atleta olinpikoa edota Martin Berasategui eta Juan Mari Arzak sukaldariek, besteak beste.

Zubietako erraustegiaren proiektua, lasarteoriatarren kezka-iturri

2016-11-24 GuraSOS taldeak antolatuta, 'Lasarte-Oria +: osasuna eta adostasuna' mahai-inguruan hartu zuten parte hainbat herritarrek, Landaberri BHIko musika-gelan. Zubietako errauste plantaren egitasmoa, hondakinak errausteak osasunean eragin ditzakeen kalteak, gizartea mobilizatzearen garrantzia, erraustegiak herritarrengan eragiten dituen kezkak...hainbat gai jorratu zituzten, luze eta zabal.

Hitzaldian parte hartu zuten Iñigo Suberbiola medikuak, Domi Insausti erizain ohiak, Juan Luis Murua parrokoak, Maite Labiano sendagileak eta Landaberri zein Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako zenbait irakaslek.

Literatur lehiaketako sarituak

2016-11-26 Aurtengo Literatur lehiaketan parte hartutako lanak saritu zituzten Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan. Lan ugari aurkeztu ziren aurtengo edizioan ere eta gitarra doinuez girotutako poesia errezitaldiaz ere gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek. Haur eta gazteen XXIX. Helduen XXX. edizioak izan dira aurtengoak. Parte-hartzaileen lagun eta senidez lepo bete zen.

2017ko maiatzaren 7an herri galdeketa Lasarte-Orian

2016-11-26 Geroz eta gertuago du Lasarte-Oriak erabakitzeko eskubideari buruz herri galdeketa egiteko eguna. Gure Esku Dago dinamikak ekitaldi batean jakitera eman zuenez, 2017ko maiatzaren 7a da aukeratutako eguna.

Okendo plazan egin zuten ekitaldia. Hiru patinatzaile iritsi ziren plazara, galdeketaren hilabetea iragarri zuten tela eskuetan. Minutu gutxira ailegatu ziren txirrindulariak, eguna iragartzen zuen telarekin. Behin data jakinda, oihal zatiak josi, apaindu eta plazako agertokian zintzilikatu zituzten. Hitz batzuk esan eta familia argazkia atera zuten denek batera.

Reggae musikaren topaleku, bigarrengoz, Lasarte-Oria

2016-11-26 Reggae musika zaletuek parrandarako aukera ezin hobea izan zuten herrian. Bigarren urtez, 'Reggae Fever Fest' musika jaialdia egin zen erdigunean, eta gauean, parrandari jarraipena eman asmoz, Elebeltz Topagunera leku aldatu eta kontzertuak izan ziren bertan.

Talde ugari aritu ziren egun horretan zehar: Marcos Carnaby eta Runto Selektorra DJak, Skabidean taldea, Euskatalites taldea eta ArtWood eta sirGorka DJak.

Xumela Ezpeletan

2016-11-26 Xumela koruko kideak Hondarribiko Olagarro eta Zarauzko Montetxio koruekin batera Ezpeletara bidaia egin zuten. Herria ezagutzeaz gain kantu saioa egin zuten bertako abesbatzekin batera. Horrez gain, turismoa egin ahal izan zuten. Bazkari-legea egin zuten denek ondoren, elkarrekin, giro ederrean.

Buruntzaldea IKT bigarren Gipuzkoako Kluben Kopan

2016-12-26/27 Lehiaketa biribila burutu zuten Buruntzaldea IKTko igerilari infantil, junior eta absolutuek Ordizian. Gipuz-koako Kluben Kopan lehiatu eta emaitza bikainak erdietsi zituzten. Horren erakusgarri, sailkapen orokorrean lortutako bigarren postua. Era berean, 25 marka pertsonal berri eta taldeko adineko eta absolutu mailako 12 errekor erdietsi zituzten kategoria desberdinetako igerilariek.

Jantzi tradizionalen ikastaro emankorra

2016-11-29 Bi hilabetez josi eta josi aritu ostean, Ttakun KEk antolatutako jantzi tradizionalen ikastaroko parte-hartzaileek egindako lanak erakutsi zituzten, giro ederrean. Urri eta azaroan zehar astearte eta ostegunero elkartu ziren Emakumeen Zentroan. Ione Artolak egin ditu koordinatzaile lanak.

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

2017 Zoriontsua opa dizuegu!

Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943 37 14 40
Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriasdani@carroceriasdani.com
www.carroceriasdani.com

Abendua

Hamarreko jaialdia 25. urteurrena ospatzeko

2016-12-03 Abenduaren 3a Euskararen eguna izateaz gain, adimen urritasuna duten pertsonen eguna ere bada. Horregatik, eta noski, hogeita bosgarren urteurrena ospatuz, jaialdi ederra egin zuen Jalgune Elkarteak, Lasarte-Oriako kultur etxean. 1991. urtean eman zituen lehen pausoak Jalgunek, eta orduz geroztik, askotariko esperientziak bildu eta ezagututa, pausoka-pausoka, ibilbide luzea egin dute gaur arte.

Hamarreko jaialdia antolatu zuten. Arratsaldeko seietan, Udal Musika Eskolako trikitilariek, Manuel Lekuona inguruak girotu eta jaialdiari hasiera eman zioten. Ordu erdi beranduago, kultur etxeko aretoa jendez lepo bete eta ikuskizunari ekin zioten. Bi orduko emanaldi koloretsu eta alaia eskaini zuten Jalguneko lagunek. Ikus-entzuleek txalo zaparrada luzeekin eskertu zuten parte-hartzaileen lana.

Banku gorria Ganbon

2016-12-01 HIESAren kontrako nazioarteko egunean bankua gorriz margotu zuten udal ordezkariek. Ekimen horretan parte hartu zuen baita ere Gehitu LGTB Elkarteko Bea Gomez kideak, kolektibo hori arrisku taldeetako bat baita gaur egun oraindik. Jesus Zaballos alkateak nabarmendu zuen erne egon behar dela gaixotasun horrekin, eta erkaunde guztiek neurriak hartu behar dituztela sentsibilizazio-kanpainak egin eta ikerketarako baliabideak sustatzen.

Lasarte-Oria eta Donostia arteko bidegorri sarea lotuta

2016-12-02 Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek eta Marisol Garmendia Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatuak Lasarte-Oria eta Donostia arteko bidegorriaren lotura inauguratu zuten. 250 metroko tarte horrekin Donostia eta Lasarte-Oria arteko bidegorria osatuta geratu da.

Horren aurrean agerraldia egin zuten EH Bilduko ordezkariek Bidegorrien egoeraren inguruan agerraldia egin zuten. Donostiarekin lortura Aldundiak bukatu duela eta pozik agertu ziren baina oraindik eskualdeko herriekin loturak eta herri barneko hainbat bide egiteke daudela gogoratu zuten. "Proiektu hori garatzeko aurreko urtean aurreikusitako 6 milioi eurotatik 2ra pasa da, kezkagarria da hori".

Viña del Mar eta Arkupe tabernak garaile

2016-12-02 Aurtengo Pintxo Ibilbideko garaileak Viña del Mar eta Arkupe taberna izan dira; herritarren saria eta Martin Berasateguirena irabazi zituzten, hurrenez hurren.

Sari-banaketa ekitaldian aurkeztutako pintxo guztien maila (zortzi izan dira denera) nabarmendu zuen sukaldariak. Era berean, parte-hartzaile bakoitzari sinatutako alkondara bana eman zien. 2.400 pintxo inguru saldu dira aurtengo edizioan.

40 egun eta gero... armairutik kanpora!

2016-12-03 Okendo plazan egindako 'Atera gera!' ekitaldian armairutik kanpora atera ziren jada Lasarte-Oriako Ahobizi eta Belarriprest guztiak. Horrela bukatu zuten berrogei egunez egindako erronka ausarta.

Goizeko hamaika eta erdietan eman zioten hasiera ekitaldiari txalaparta doinuek. Hainbat ekintza egin ziren Okendoko oholtza gainean. Palmondo famatua Okendo plazara ekartzeko aldarria eta ahobizi txanda guztien dantzak, besteak beste.

Ondoren, Pello Jauregi EHUko irakasle eta ikerlariak hartu zuen hitza, eta erronkaren lehen balorazio positiboa ezagutu ahal izan zen. Eguerdiko ekitaldian aurreratu zuenez, erronka "mundiala" izan zen; guztira, 1927 belarriprest eta 957 ahobizi.

Ekitaldiari bukaera ezin hobea emate aldera, Okendo plazara gerturatu ziren herritarrek argazki erraldoia atera zuten guztiek elkarrekin, oihal bat zabalduz eta armairutik irten zirela irudikatuz.

Ibon Fernandez Iradiren zigor-etete eskaera, ukatua

2015-12-15 Parisko Zigorren Aplikazio Ganberak ez zuen onartu Ibon Fernandez Iradi herriko euskal presoaren zigorraren etete eskaera. Estatu frantsesean larriki gaixo dagoen preso bakarra da; esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten 2013an. Gauzak horrela, espetxean jarraitu beharko du herritarrak. Bere abokatuek helegitea jarriko diote erabakiari.

Erabaki horren aurrean protesta egin zuten hainbat lasarteoriatarrek hurrengo egunetan, Okendo plazan antolatutako ekitaldian eta manifestazioan.

Urtzi Telleriak 45 altxaldi eginda ezin apustua irabazi

2016-12-04 Harrijasotzaileen arteko apustua izan zen Asteasuko Usarrabi frontoian. Bertan aritu zen Urtzi Telleria herritarra Josetxo Urrutia nafarraren aurkako norgehiagokan. Kirolari bakoitzak, bere pisu propioaren bikoitza pisatzen zuen harria altxatu behar izan zuen, sei minutuko hiru txandatan. Horrela, leitzarrak 11 jasoaldi gehiago eginda, garaipena erdietsi zuen.

Gaztetxoak lehen puntadak ematen joskintza ikastaroan

2016-12-08 Ttakun KEk gazteei zuzendutako joskintza ikastaroa egin zuen. Ione Artolak egin zituen irakasle lanak. Modu praktikoan, oinarrizko ezagutzak eta makina nola erabili ikasi zuen gaztetxo talde batek. Estutxeak eta gabonetako zuhaitzean jartzeko galtzerdiak egin zituzten.

Nely Carla Alberto Europako txapelketatik at

2016-12-09 Nely Carla Alberto herritarra Europako eskubaloi txapelketan aritu zen jokatzen Espainiako selekzioarekin. Finalaurrekoetara ezin izan zuen sailkatu Jorge Dueñasen taldeak, Frantziaren aurka 22-23 galduta, azken segundoan. Chambray Touraine talde frantsesean ari da jokatzen aurten herritarra.

Herritarrek udal proiektuak hautatzeko aukera

2016-12-13 Gai ugari jorratu zituzten korporazioko kideek urteko azken ohiko udalbatzarrean. Besteak beste, 2017ko aurrekontuetan herritarren parte-hartzea garatu eta indartzeko mozioa onartu zen. Gauzak horrela, 2017an herritarrek parte-hartze prozesu bidez aukeratutako egitasmoetarako 500.000 euroko aurrekontua finkatu zen.

Atsobakarreko kirol proiektua, aurrera

2016-12-15 Lasarte-Oriako Udalak "argi" du: Atsobakarren 400 metroko atletismo-eraztun bat eta futbolean zein errugbian aritzeko zelai bat eraikitzeko egitasmoa lantzen jarraituko du. Lursail horien zati baten jabe Usurbilgo Udala da, eta berriki erabaki du instalazio horiek eraikitzeko ez uztea. "Moldatu egingo dugu hasierako proiektua; harmailik gabe eraikiko ditugu eraztuna eta zelaia", jakinarazi zuen Jesus Zaballos alkateak prentsaurrekoan.

Adierazi zuen proiektua idazteko pleguak prestatzen ari direla, eta Atsobakarrekoak ez direla izango herriko kirol instalazioetan egingo diren lan bakarrak. Udal Kiroldegia berritzeko asmoa ere badu Udalak, baina Atsobakarreko proiektua bukatu arte ez litzateke hasiko.

Gitarra eta ahotsek girotutako gabon kontzertua

2016-12-16 Danok Kide Elkarteak antolatutako XII. Musika Topaketen baitan, gabonetako kontzertua egin zuten Ama Brigitarren komentuan. Askotariko doinu ezagunak entzun ahal izan ziren gitarra-joleen eta abesbatzaren eskutik. Francisco Escudero kontserbatorioko eta Luberri Abesbatzako kideek hartu zuten parte.

Askotariko ekintzez jositako II. Kalera Fest jaialdia

2016-12-17 Ekintza ugari izan ziren herri erdigunean II. Kalera Fest jaialdiaren eskutik. Haur eta gaztetxoentzako mural margoketa, areto-futbola, zunba, batukada eta beste zenbait ekintza izan ziren larunbatean, egun osoz, herriko leku ezberdinetan. Eguraldia lagun, giro ezin hobea izan zen eta jende ugari gerturatu zen jaialdiaren baitan antolatutako ekintzetan parte hartzera.

Aurtengo kirol merituen aitortza hiru herritarri

2016-12-17 Aizpea Arroyo gimnastak, Jon Ander Puertas errugbi jokalariak eta Txema Indias Leganes futbol taldeko kirol zuzendariak jaso zituzten aurtengo kirol merituen aitortzak, udaletxeko pleno aretoan antolatutako ekitaldi xumean. Hiruek esker hitzak izan zituzten eta pozarren jaso zuten saria. Bukaeran, familia argazkia atera zuten udal ordezkariekin batera.

Giro ederra 'Fabrimusikala 11+4' jaialdian

2016-12-17 Fabrimusikala 11+4 jaialdia egin zen Elebeltz Topagunean. Askotariko estiloetako musika-emanaldiak, hitzaldia eta umore saioa izan ziren egitarauaren baitan antolatutako ekintzetako batzuk. Goizetik hasi eta gaueko ordu txikietara arte luzatu zen festa. Autogestioan oinarritutako Fabrimusikalaren laugarren edizioa izan da aurtengoa.

Herritar gazteei sariak 'Motxian Eby' lehiaketan

2016-12-17 Gazte lasarteoriatar talde batek irabazi zuen Motxian Eby esketx lehiaketako bigarren saria, 'Mastertxef' lanarekin. Herri mailako saria, berriz, 'Aldazank' lanarentzat izan zen.

Gabonei ongi-etorria eginez

2016-12-18 Herriko Alboka abesbatzak, gabonetako kontzertua eskaini zuen Brigitarren Komentuko kaperan. Aldapeta abesbatza izan zen gonbidatua eta eurek ere Eguberrietako doinuak abestu zituzten.

San Tomas azoka, Eguberrien aurrekari

2016-12-21 Herritar ugari gerturatu zen Ttakun Kultur Elkarteak arratsaldean antolatutako San Tomas azokara, Eguberriei ongi-etorria egitera. Giro hotzari aurre egiteko txistorraz, gaztaz zein txokolatez betetako talo goxo eta beroa edota gaztainak jatearen alde egin zuten askok. Bien bitartean, Okendo plazako oholtzan giro ederra jarri zuten Ttirriki Ttarraka taldeak, Lierni Rekondo bertsolariak, Xumela abesbatzak eta Erketz eta Kukukaren eskutik egin zen erromeriak. Txerramak eta txerrikumeek ere bereganatu zuten herritarren arreta.

Komentuko argiak itzalita, kandelatxoa eskuan azaldu ziren agertokira Alboka abesbatzako kideak, eta 'Gabaren erdian' kantua abestuz eman zioten hasiera entzunaldiari. Horren ostean, Eguberrietako abesti ezagun ugari eskaini zituzten. Ondoren, Aldapeta abesbatza irten zen agertokira emanaldia eskaintzera.

Bukatzeko, bi abesbatzetako kideak elkartu eta 'Hator hator' abesti herrikoi ezaguna eskaini zuten.

Errugbia eta emozioak Michelingo zelaian

2016-12-18 Hunkigarria izan zen goiza Michelinen. Errugbia eta emozioak nahastu ziren: Beltzak eskolako 10 eta 12 urtez azpiko gaztetxoak topaketak izan zituzten, eta, hori baino lehen, berriki zendutako eta Beltzak klubeko kide izandako Aitor Uranga omendu zuten. Haren ahaideek lore-sorta eta Beltzak Eskolaren zein Beteranoen urrezko pinak jaso zituzten.

Kulturak elkar ezagutuz

2016-12-18 Migratzaileen nazioarteko egunaren harira, Anitzen sareak bi ekitaldi antolatu zituen. Abenduaren 13an, Rahma elkarteko kideek haien lana erakutsi zuten Villa Mirentxun; arabiarrezko oinarrizko hitzak erakutsi zizkien bertaratutakoei.

Bestalde, Jone Miren Hernandez antropologoaren eskutik, Lasarte-Oriako elkarguneetako ibilbidea egin zuten herritarrek abenduaren 16an, Lasarte-Oriaren edo eskualde desberdinen bilgune izan diren puntuak bisitatuz.

Ustelkeria salatuz

2016-12-19 EH Bilduk antolatutako 'Azpiegitura handien interes ekonomikoak' hitzaldia izan



zen. Igor Meltxor idazlea izan zen hizlaria. Bere eskutik, ekitaldira gerturatu ziren herritarrek 'Kazetari kanalla' proiektua ezagutu zuten. Ikerketa, eztabaida eta analisiaren bitartez, gure gizarteko arlo desberdinetan dagoen ustelkeria eta interes ekonomiko ezkutuak azaleratzen saiatzen dira. Horretarako, egunkari edo webgune desberdinetan argitaratutako informazio idatziaz eta ikus-entzunezkoaz baliatzen dira.

Elkarlana hitzarmenen bitartez sendotuz

2016-12-19 Euskalgintzako gizarte eragileekin 2016-17 ikasturterako lankidetza hitzarmenak sinatu zituen Lasarte-Oriako Udalak. Ttakun Kultur Elkarteak (ia 192.000 euro) eta lau ikastetxeetako guraso elkarteek (52.487 euro lauen artean) sinatu zituzten aipatu akordioak. Horiez gain, Landaberriri eta Ttakuni 50. eta 25. urteurrenetako ekintzak ospatzeko dirua ere eman zaie, 10.000 eta 5.000 euro hurrenez hurren.

Xixuko ahatea herriko ikastetxeetan bisitan

2016-12-19 Herriko ikastetxeetako haur eta gaztetxoek Xixuko ahatearen bisita berezia jaso zuten, urtero bezala. Ahateak Olentzero eta Mari Domingiren etorreraren berri eman zien gaztetxoei, eta haiei idazteko eskutitzak banatu ere bai. Lagun berezi batek ere egin zituen hainbat bisita Xixukorekin batera: Ahobizi. Umeei herriko euskalgintzak izandako urte berezia azaldu zien.

'Beti oporretan' aztertuz ikasturteari amaiera

2016-12-20 Herritar baten liburua aztertuz (Harkaitz Canoren 'Beti oporretan') bukatu dute urtea Irakurleen Txokoko kideek. Uxue Alberdiren laguntzaz, idazleak ipuin bilduma honetan aurkezten dituen testuei buruz hausnartu zuten. Hala nola, ipuinek sortzen zizkieten sentsazioak azaldu zituzten irakurle txokoko kideek.

Lanbidek kaltetutako plataformarekin hitzarmena

2016-12-21 Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosek eta Lanbidek kaltetutakoen plataformako ordezkari Victoria Molinak hitzarmena sinatu zuten. Elkarteak 3.000 euroko laguntza jasoko du bere jarduerak garatzeko.

'Armairuaren zirrikitutik' Lasarte-Oriako euskalgintzari begira

2016-12-23 Herritar talde baten testigantzak bilduta, euskarak, azken berrogeita hamar urteetan, Lasarte-Orian izan duen ibilbide biltzen duen 'Armairuaren zirrikitutik, Lasarte-Oriako euskalgintza 1996-2016' dokumentala aurkeztu zen, Manuel Lekuonan.

'Maialen Chourraut Kirol Zerbitzua', errealitate

2016-12-26 Piraguista herritarrak inauguratu zuen Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuaren izen ofiziala, familia eta lagunak alboan. Hemendik aurrera, 'Maialen Chourraut Kirol Zerbitzua' izenez ezagutuko da. Herritar ugari gerturatu ziren ekitaldia ikustera. Iraileko ohiko udalbatzarrean adostu zuen Udalak herriko kirol zerbitzua horrela izendatzea, aho batez, "nazioarteko kirolean herriak duen enbaxadore nagusiari aitortza gisa".

'Kirol Egokitu eta Inklusio eguna' Okendo plazan

2016-12-27 Ostadar SKTren Kirol Egokitu alorrak 'Kirol Egokitu eta Inklusio eguna' antolatu zuen Okendo plazan. Ekitaldi horretan hainbat kirol egin ahal izan zituzten herritarrek, mugimendu urritasuna daukaten kirolariak aritzen diren bezala. Saskibaloia, futbola, boloak, toka eta Ipar Martxa izan ziren probatu zituzten kirol diziplinak.

Hori baino lau egun lehenago aurkeztu zuten ofizialki Ostadarren alor berri hori, Michelin fabrikan.

Erraustegiaren lanen lizitazioa, protesta artean

2016-12-27 GHK Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak Zubietan erraustegia eraikitzeko lanak esleitu zizkion Urbaser, LKS, Moyua, Murias eta Altuna eta Uria enpresei. 768 milioiko kostua dute, 32 urtetan ordaindu beharko direnak.

Horren aurrean, Gipuzkoa osoko milaka herritar bildu ziren Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzaren aurrean, 'Ez onartu erraustegi kriminal hau! Ez onartu lapurreta!' lelopean. Bertatik abiatuta, ozen egin zuten protesta Gipuzkoako hiriburuko kaleetan barrena. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak adierazi zuen borrokan jarraitzeko asmoa daukala. Bien bitartean, GuraSOS zain dago, jakiteko ea Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako 3. epaitegiak ebazten duen erraustegiaren lanak gera daitezkeen ala ez.

Olentzeroren etorrera

2016-12-24 Urtero bezala, Euskal Herriko ikazkin maitatuena menditik jaitsi zen lasarteoritarrei opariak banatzera, Mari Domingi eta Xixukorekin batera.

Herritarrek harrera beroa egin zieten horiei denei Okendo plazan. Ekitaldi koloretsua egin zuten denek elkarrekin Porrotx pailazo bihurriarekin batera. Ondoren, haurren eskutitzak jaso zituen ikazkinak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri
Erredakzioa:
Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega
txintxarri@txintxarri.eus
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

www.txintxarri.eus

Hurrengo Txintxarri paperean,
urtarrilaren 13an argitaratuko dugu.

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean!!

Maite BETELU

2017 zoriontsua opa dizuegu!

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliaria zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitzen administrazioa

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 48 86

aterpea lasarte/oria

aldaz
hortz klinika

Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta
Urteberri on
2017
opa dizue

RPS 233/13
Esther Maestre Martín.
Odontóloga. Coleg. 20000570